

Aukerak zabaltzeak joko patologiak azkartzea ekarri du / 2-3

Amaia Jaka txapeldun

Laboral Kutxa Emakume Master Cup
Lau T'erdiko finala irabazi du ihabardarrak / 13



Urdiaingo ziklo-krosa

Larunbatean jokatu da
11:00etatik aurrera / 14



Nicolas Arbizu Gabirondok "Burundako mandazainak" liburua aurkeztu du / 6

Sakanako belenzaleen elkarteak jaiotzen erakusketa ikusgarria prestatu du beste behin / 12

Oihane Andueza lakuntzarrak "Darse cuento" liburua aurkeztuko du gaur Lakuntzan / 23

Ainhoa Beraza Maiza da Irañetako alkate berria. Sakanako 15 alkateetatik lau dira emakumezkoak / 5

Ziordiarrek gaur Santa Luzia eta gaztetxearen 25. urteurrena ospatuko dute / 7 / 24

Lur Larraza etxarriarrak Xabi Bandiniren 'Biba' proiektu berrian parte hartu du / er



Haur eta Familiei Tratu Ona Emateko Sareetako kideak Aralar Nafarroako ludopaten elkarteko kideekin bilduta. UTZITAKOIA

"Azkarrago sortzen da joko mendekotasuna orain"

ANA BALDA ETA LUZIA GONZALEZ DE PEDROSO ETXARRIKO GIZARTE ZERBITZUAK Joko-aretoak zabaltzen ikusten ditugu. Haien kontrako protesta ahotsak entzun. Jokalari patologikoen berri, ordea, ez dugu. Datuek diotenez, gero eta gehiago dira

Eneida C. / Alfredo A. SAKANA

Lastailaren 29a ausazko jokorik gabeko eguna da. Sakanako Haur eta Familiei Tratu Ona Emateko Sareetako profesionalak ausazko jokoari buruzko prestakuntza

saioa jaso zuten Aralar Nafarroako ludopaten elkarteko kideen eskutik. Gainera, gurasoendako bi saioko tailerra egin zuten Etxarri Aranazko kultur etxean azaro hasieran.

Nolaz halako prestakuntza?

Ana. Elkarteak Haur eta Familiei Tratu Ona Emateko Sareko profesionalendako saio bat eskaini zigun. Sarea hezkuntza, osasungintza, Foruzaingoa, Gi-

zarte Zerbitzuek eta hurrekin harreman zuzena duten herrietako profesionalak osatzen dugu. Jokoan, mendekotasun guztietan bezala, prebentzioak ikaragarriko garrantzia du. Horri heldu nahian egin genion. Batetik, profesionalak jantzi behar gara eta, bestetik, gurasoak ere hezi behar direla. Azkenean, aurreneko heziketa etxean egiten da. **Luzia.** Aralar elkartekoek 23 urte daramate Nafarroan gaia lantzen. Haien helburuak dira, batez ere, sentsibilizazioa eta prebentzioa, informazioa eta aholkuak ematea eta errehabilitazio bidean laguntzea. Gurera sentsibilizazio helburuarekin etorri ziren. Baita kontzientzia hartzea sustatzeko: gure inguruan hor dago ausazko jokoaren gaia, arazoak... Jende guztiak ez du arazoekin bukatzen, baina igoe-ra ikusten dugu.

A. 2011n Jokoari buruzko Legeak Estatuan kirol apustuak eta jokatzeko lokalen zabalera eta on-line jokatzeko aukerak ahalbidetu zituen. Aldaketa izan zen.

Ondorioz argazkia aldatu da, ezta?

L. Tabernetan apustu makinak ditugu, edozeinen eskura, eta joko-aretoen zabalera, Altsasun, esaterako. Gero eta iragarki gehiago dago. Telebistan, esaterako, famatuak joko enpresak iragartzen ikusten dituzu. Kirolarekin lotuta ere ikusten duzu, esanez bezala, "kirola bada, ez da arriskutsua izanen!" Halakoe-kin jokatzeko dute. Gainera, begiratu behar dugu inguruan nola saltzen dituzten gauzak: ez da batere garbia.

A. Publizitatean mugitzen den dirua ikaragarri handitu da urte hauetan, milioi pila marketingean, hau da, jokoen publizitatean.

L. Aurten erabiltzaileen igoera % 25ekoa izan da. Bada kontuan hartzeko datua.

Zein da jokalari baten profila?

L. Jokalari patologikoaren profila ere aldatu egin da. Lehen 40-50 urte artekoak ziren. Gaur egun, berriz, 20-30 urte artekoak da. Askok jaitsi da adin tartea. Ekonomia-mailari dagokionez, lehen ertaina-baxua zen, orain

ertaina-altua da. Lehen txanpon-makinak, kasinoak... eta gure inguruan betidanik ezagutu ditugun frontoiko apustuak, porrak. Orain, horiei, kirol-apustuak eta on-line jokoak batu zaizkie, gero eta gehiago.

Bertatik bertarako apustutik mundu mailako joko aukerara pasa da.

A. Intentsitatea aldatu da. Lehen mendekotasun bat garatzeko 6-7 urte behar baziren, orain bi urterekin jendeak joko-mendekotasuna du. Aipatu dituzun modu berri horiek ere etxetik mugitu gabe jokatzeko erraztasun gehiago ematen dute. On-line jokatzeko aukera zabalak, etxetik mugitu gabe. Bestea da orain ez dela diru fisikorik behar ordaintzeko, hor duzu txartela. Zenbait apustu kirolarekin lotuta dago, iragarkietan kirolariak ageri dira: "haiek egiten badute..."

Eskaintza asko zabaldu da. Askotan ezagutzen ez ditugun kirolak.





L. Aukera pila daude. On-line munduan zer gertatzen da? Aukerak zabaltzen dira. Zuk jokatu dezakezu Japoniako lehiaketan kontura. Horrek errehabilitaziorako zailtasun handiagoak ekartzen ditu. Lehen etxetik txanpon-makinara mugitu behar bazinen han dirua sartzeko, errehabilitazio garaian taberna hartara joanen ez bazina, agian konponduta. Baina orain telefonoan, etxean, dena duzu.

A. Esan zutenez, hirietan joko-areto berriak gazteak biltzeko gune bihurtu dira: tabernatxoak dituzte, edaria edozein tabernetan bezala edo merkeagoa, pintxoak, partidak ikusteko pantaila handiak... Ez duzu zertan jokatu beharrik. Baina arriskua handiagoa da. Normalizatzea.

Lokal erakargarriak dira.

A. Lehen billar-areto batean sartzea zen leku ilun batean sartzea, orain mundu polit batean sartzen zara.

L. Dena aztertuta dago. Ez dute edozein argi. Musika ere. Soinuak. Joko-aretoetako guztia aztertuta dago, gu gonbidatzeko helburuz. Esaterako, ate paretik pasatu eta zabaldu egiten da, etor zaitez. Ez duzu bultzatu beharrik ere.

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Beirak lehorrean jarrita
			 Etxe pasiboetarako egokia
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			

Joko-patologian genero aldagaia sartzen da?

A. Prestakuntza saioan gai horri aparteko tarte bat eskaini zioten. Euren datuen arabera Estatuan arazorik gabeko jokalarien % 40 emakumezkoa da, % 60 gizonezkoa. L. Emakumezkoak gero eta gehiago jokatzen ari dira. Eta ez daki-gu zergatik. Ziurrenik lehen gizonezkoen kontua izanen zen. Orain hori ere erakargarri bihurtu da, erretzea edo edatea bezala. A. Hala ere, elkartean tratamenduan dauden % 90 gizonezkoak dira eta % 10 emakumezkoak.

L. Joko-patologia gehiago gizonezkoen artean gertatzen da. Batzuk eta besteak elkartera nola iristen diren ere desberdina da. Gizonezkoak, normalean, norbaitekin joaten dira, emaztea, ama... Emakumezkoak, berriz, bakarrik doaz elkartera. Horrek ere zer pentsa ematen du. Ziurrenik, emakumezkoak ditugun rolerkin lotura du, zaintzarekin eta. Zer gertatzen da? Gutxiago joaten direla elkartera: emakumezkoa zara, joko arazoak dituzu eta senarrak pausoa ematera animatu arren, bakarrik joaten da. Kontuan hartu behar dugu.

A. Joko-patologian, mendekotasunean erortzeko arrazoiak ere desberdinak dira. Emakumezkoak, gehienetan, zerbaiti ihes egiteko joaten dira: depresioa, antsietatea, arazoren bat... Gizonezkoak, berriz, jokatzeagatik, dirua irabazteagatik joaten dira. Ondorioz, errehabilitazioa ere oso desberdina da. Emakumezkoekin gauza batzuk landu behar dira eta gizonezkoekin beste batzuk. Beti ere, orokorrean hitz eginda. Banan-banan aztertuta denetarik dagoela esaten dute elkartekoak.

Jokalari patologiko bihurtzeko faseak ere izanen dira, ezta?

L. Bai, hiru. Aurrena, erabilera. Denok egin dezakeguna, jokatzea. Edozein mendekotasunean gertatzen dena, arazorik gabeko erabilera bat. Kasu honetan jokoarena. Esaterako, loterian edo ONCEn jokatzea. Noizbehinkakoa da, nahi duzunean utzi dezakezu eta ondorio txarrik ez dizu uzten. Bigarren maila abusua da. Normalean egiten dituzun gauzak egiteari uzten diozu. Esaterako, kirola ez egitea, lagunekin ez ateratzea... Zure bizitza jokora egokitzen hasten zara. Jokoaz abusatzen hasten zara. Atzeneko fasea mendekotasuna da, bizitza jokoaren inguruan ardaztuta

dagoenean. Zure bizitza jokoari emanda dago planifikatuta.

A. Uzteak kristoren ondorio txarrek ekartzen ditu. Eta jokatzeak baita. Baina fase horretan ezin duzu utzi, eta ez duzu uzten.

L. Adi egon beharrekoa da. Batzuetan gauzak nahasten dira. Familian ikusten dute ez dela ateratzen, ez duela edaten... Zer gertatuko zaio? Edo sustantziaren baten kontsumoren batekin lotzen dute. Eta jokoagatik izan daiteke. Horregatik, joko-patologia aukera moduan kontuan hartzea garrantzitsua da.

A. Sustantzien kontsumoa, uneren batean, fisikoki nabaritzen da. Jokoa, ez.

L. Baina burmuinean mendekotasun bera eragiten du. Jokabideetan nabaritzen da. Buru-nahasteen diagnostiko- eta estatistika- eskuliburuan mendekotasun gisa hartzen da. Sortzen ditu urduritasuna, suminkortasuna...

A. Argi izan behar da jokoa ez dela ez ona eta ez txarra. Beste gauza guztiekin bezala, egiten dugun erabilera da, jokoarekiko zer harreman dugun. Orain droga, janaria, kirola, edertasuna... horiek mendekotasuna sor ditzakete. Horregatik, prebentzioa oso garrantzitsua da. Zenbat eta gazteagoa izan burmuina "freskoago" dago eta arrisku denetarako zaurgarriagoa da. Beraz, kontuan izan, jokoaren arriskua ere hor dago.

L. Kontziente izan behar dugu haurrak txikitatik prebenitu behar ditugula. Familian ere frustrazioa landu behar da txikitatik. Bizitzan ezin ditugu gauza guztiak lortu, frustratu behar dugu. Hori oso inportantea da. Bestetik, orain eguberriak iristen direla eta denak apustuak eta ez dakit zer. Hori ere, gutxienez, kontuan hartu behar da.

Aralar elkarteak

Aralar Nafarroako ludopaten elkarteak Iruñean du egoitza. Harremanetan jartzeko: 665 802 545 edo 848 414 849 telefonoetara hots egin, asociacionalaral@yahoo.es e-postara idatzi daiteke. Web oria badute: www.asociacionalaral.org

Joko-aretoak arautzeko aurreneko pausoa

"Gure gizartearen errealitate eta ohitura berriek eragin duten substantziarik gabeko adikzioen gorakada kezagarria dela-eta, jabetu gara egoeraren larriaz eta hasi gara hartzen ludopatía osasun publikoko arazotzat"

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Irurtzungo Udalak apustu-etxeak eta joko-aretoak arautzeko eta ludopatía prebenitzeko neurri buruzko ordenantzaren hasierako onarpena egin zuen azaroaren 26an. Izan ere, udalek badute eskumena apustu-etxeei eta joko-aretoei parametro mugatzaileak jartzeko, batez ere, hirigintzaren eta hiri-ingurumenaren arloetan. Horregatik, Irurtzungo Udalak hirigintza arloko mugak jarriko dizkie halako aretoei, haurrak eta gazteak babesteko irizpideetan oinarriturik, osasun publikoa eta interes orokorra zaintzeko. Ondorioz, halako lokalak ezin izanen dira ireki populazio sentikorra (haurrak, nerabeak eta gazteak) maiz ibiltzen den tokietatik hurbil.

Aurreneko onarpena jaso duen Irurtzungo araudiaren arabera, jokorik gabeko eremua izendatu dira hezkuntza, kultura, gazte, osasun eta kirol zentroetako eta jolasteko instalazioen sarreratik 400 metroko erradioan dauden kale guztiak. Jokoarekin lotuta dauden lokalak arteko gutxieneko distantzia 400 metrokoa izanen da. Apustu-etxea edo joko-aretoa jartzeko jarduera-lizentzia eskatzen duenak, zein lokaletarako eskatzen duen baimena haztearekin batera, jakinarazi behar du zabalik dauden beste lokalak zein distantzia dagoen.

Publizitatea eta prebentzioa

Irurtzungo Udalak, bestalde, aurreikusitako halako establezimenduen publizitate ez onartzea hiri-altzarrietan edo espazio publikoan. Jarriko balira udalak kendu egingen lituzkete. Beraz, joko-publizitatea lokaleko karreteletara mugatuko da, nahiz eta haietan soilik izena jartzeko agindu ahalko duen udalak. Bestetik, Irurtzungo Udalak ez dio dirulaguntzarik emanen apustu-etxeek osorik edo zati batean babesten duten ekitaldiei, eki-



ORDENANTZAREN ETA JOKOAREKIN DAGOEN ARAZOEN BERRI EMATEKO MAHAI-INGURUA ILBELTZEAN

taldiak lokal fisikoan edo on-line eginda ere.

Prebentzioaren atala ere jasotzen du ordenantzak. Batetik, apustu-etxeak eta joko-aretoak sarreran zein barnean adikzioen arriskuari buruz eta, adikzioa izanez gero, hura tratatzeko lekuei buruzko informazio kartela behar dute, ongi ikusteko moduko tokian. Aldi berean, lokalak ustiatzen diren joko eta apustu makinak identifikatu behar dira. Bestetik, ikaste-txeetan informazio-jarduera gehiago egitea aurreikusten da, gazteek online jokoen eta apustuen inguruan egiten duten erabilera eta haren ondorioz sor daitezkeen arazoak lantzeko.

Ordenantza onartu ondoren, Irurtzungo Udalak lokal horiei buruzko zerga-ordenantza onartzea aurreikusten du, eta % 15eko zerga tasa aplikatuko zaie.

Zergatiak

Udalak hainbat argudio eman ditu. Batetik, "joko patologikoa nahasmen du bat da, mediku eta psikologo sailkapenetan joko-aretoak adikzio gisa agertzen dena". Sozioekonomiari ere erreparatu dio joko-lokalei buruzko araudia osatzerakoan: "lan prekarioan irabazitako errentak arriskatzera tentatzen dituzte langileak, eta kontuan hartu behar da normalean ezin izaten dutela lan egonkorrik egin lan-gabezia kroniko handia dela-eta. Horrela, ez da harritzekoa politika neoliberalak eragin negatibo handiena apustu-etxeen bidez izatea errenta txikiak dituzten auzo eta herrietan. Horiek bereziki gazteei eragiten diete; izan ere, itxaropenik eta etorkizun egonkorrik eza da haztegirik onena adrenalina dosi azkarrak lortzeko, are gehiago, dirua ahalginik egin gabe irabazteko aukera baldin badago". Gainera, "ez da onargarria apustu-etxeek egunez egun beren irabaziak handitzea eta familien eta gizarte osoaren esku uztea euren jardueragatik jokoan harrapatuta dauden pertsonen tratamendua osorik ordaintzeko betebeharra".



ASTEKOA

RAF ATXURI

Zaldi urdina

Sumin eta samin, harro eta desafioka, arnas estuan eta hatsanka, irrintzia zorrotz eta xede larrian trostan dabil azken hilabeteotan, baita hurrengoetan ere, zaldi zangar bat euskal antzokietako oholtzak astintzen. Artedrama, Dejabu eta Axut konpainiek ekoitzi eta taularatu duten *Zaldi urdina* antzezlanak. Unai Iturriaga eta Igor Elortza idazle, Ander Lipus eta Fuchs gidari, drogaren lanbidea hinki hankarik gabe jorrazten dute dramaturgia zaindu, zaintsu eta hunkigarri batez.

Lipusen ibilbidea luze bezain oparoa da, berak dio txikitzen mezuutil gisa egin zituela lehen urratsak antzerkigintzan; aspaldi samarrean, orain hogeitaz urtetsu, Altsasuko gaztetxean ikusi genuen *Ardoaz* sorkari guztiz inpaktantea gorpuzten. Antzerkiaren abangoardian eta esperimentazioan beti, zerrenda mamitsua osatu du: *Errautsak*, *Hamlet* edo *Frankoren bilobari gutuna*, besteak beste.

Oraingoan ere gai korapilotsu eta minbera bati ekin dio, 80ko eta 90ko hamarkadetan drogaren ibiliak laga zuen txikizioa ispiluen bidez erakusten du, eta tragedia kolektibo honek dimentsio unibertuala duen arren, Euskal Herriko talaiatik aztertzen du.

80KO ETA 90KO HAMARKADETAN DROGAREN IBILIAK LAGA ZUEN TXIKIZIOA ISPILUEN BIDEZ ERAKUSTEN DU

Izan ere, gutxienez bi belaunaldi heriotzaz eta oinazez zipiritzindu ditu drogak hemen eta han, eta nekez aurkituko dugu gure artean drogaren ondorio zitalak ezagutu ez duen herri, auzo, familia edota lagunarterik.

Bitxia da, baina "relato" deritzan lehian drogak ez du toki jakinik, baina kontakizun zintzo eta zabal batean izurrite zer rol izan zuen jakin beharko dugu inoiz. Bada, *Zaldi urdina* sorkariak ikuspegi zehatz eta zorrotz bat eskaintzen digu; bestetzuk etorriko dira.

Intriga bitxi bat, dramaturgia berrizalea (tarteka ulertzeko zaila), antzezleen lan bikaina, emaitza zoragarri bat... Irurtzuen, Etxarri edo Altsasuko oholtza batean apopilo uraiko ditugu "zaldun" hauek iluntze batez?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK

Jon Gurutz etxia!

MUXI MARIÑELARENA

PELLO ANAIA 1993AN MENDEKUZKO ESPETXE POLITIKAREN ONDORIOZ HILA

BAUTISTA BARANDALLA

PRESO OHIA, 19 URTE ESPETXEAN, AZKEN 4 URTEAK GAIXOTASUN LARRI ETA SENDAEZIN BATEKIN

Euskal Herrian jaio izanaren ordaina izan da gatazka mingarri batean harrapatuak egotea. Aukera bat izan zitekeen ez ikusiarena egin eta ezer gertatuko ez balitz bezala bizitzen saiatzea. Zilegi izan daiteke. Baina gauzak gertatzen dira; eta gertatzen diren gauzak ez dira nolana hikoak; herri baten biziraupena jokoan jartzen dute gertatzen diren gauzek. Eta zorionez,; herri honetako gizon eta emakume askok gure herriaren alde duten hoberena emateko hautua egin dute, egin dugu. Ez da hautu xamurra izan. Hasiera hasieratik jakin izan dugu egindako hautu hori ez zela doakoa izango.

Gatazkaren logika nagusitzen denean irudi du arerioari min gehiago egiteko gai dena izango dela azkenean "garaile" aterako dena. Herriaren eskubideen alde borroka egin dugunok ere ez gara zurrumbilo horretatik

kanpo egon. Segur asko, ekidin zitekeen mina eragin dugu. Baina ongi eta gaizki egindako gauzen ginetik beti izan dugu helburu bat: lehenbailehen bukatu behar da gatazkarekin, askatasunean eta bakean bizi ahal izateko. Eta garbi izan dugu ere gatazka gordinenak ere arauak izan behar dituela; gizatasunari loturikoak; nazioarteko hainbat hitzarmenetan ere aitortuak. Arau horietako bat da gaixotasun larria duten presoek bizitza duin baterako eskubidea dutela. Espetxean egotearekin bateraezina den eskubidea. Nere anaia Pello zerraldo ekarri genuen kartzetatik. Ni neu, Bautista, ez nintzen oso aparte egon patu horretatik, baina herriak ni etxera ekartzea lortu zuen eta bizitza berregiteko aukera izan dut. Jon Gurutz da orain gure kezka. 69 urte betetzera doa; 42 herritik kanpo. Hogeita hamar urtez silueta beltz bat izatetik borrokak zaildutako aurpegi baten argazkia izatera pasa zen. Orain gaixo dago. Eta etxera etortzeko garaia bada. Ekarki behar dugu. Abenduaren 27an, 19:00etan Etxarri Aranatzan egingen den manifestaziorako gonbitea luzatu nahi genieke sakandarrei. Denak etxera!


Pankarta kenduko dute, baina ez dute mezua isilaraziko

GURUTZE ARREGI MUJIKA

ALTSASUKO MUGIMENDU FEMINISTAREN IZENEAN

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean, azaroaren 25ean, Altsasuko Mugimendu Feministak jarritako hainbat pankarta eta kartel kendu zituzten. Beste behin ere, feminismoak salatu eta argira ekarri duen errealitatea ezeztatzen saiatzen jarraitzen dute batzuek. Gu isilarazten. Bada, ez dute lortuko. Ez dugu horrelakorik onartuko. Indarkeria matxistaren aurpegi guztiak salatzen jarraituko dugu. Hau bezalako eraso horiek guztiak gaitzesten, lehenengotik azkenera arte.

Aldi berean, autodefentsa feministaren bidez indarra hartzen jarraituko dugu, saretze feminista indartzen. Pankarta kenduko dute, baina ez dute lan hori guztia akabatuko. Ez gaituzte geldituko, honezkero, geldiezinak garelako.



Datorren astean, urteko azken Guaixe astekaria izanen da. Gutunak eta zorion agurrak argitaratzeko hurrengo aukera ilbeltzaren 10ean izanen da.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketazalea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZALEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
Ainhoa Ebeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gipuzkoako arropa Aralurren botata

Ziordiko Udalak salaketa jarri ondoren Foruzaingoa Gipuzkoako enpresa bat ikertzen ari da. Kamioikada bete arropa hamar bat alditan hustu omen zuen aurri egoeran dagoen lantegian. Mank: "ez da gure arropa, guk egoki kudeatzen dugu"

ZIORDIA

Irailaren erdialdean jakin zuten, baina ez dakite noiz hasi ziren. Ziordiarrek Aralur enpresa zeneko orubean arropa meta bat ikusi zuten. Udala jakinaren gainean jarri zuten eta hark Foruzaingoa. Berriki arropaz kargatutako kamioia berriro Aralurren deskargatzen ikusi zuen ziordiar batek. Kamioiaren matrikularen berri udalari eman eta hark Foruzainengana jo zuen. Gipuzkoara bueltan zihuan kamioia Etxegarateko portua iritsi baino lehen geldiarazi zuten foruzainek. Kamioia Gipuzkoako enpresa batena da eta haren kontra legez kanpoko isuriagatik salaketa jarri dute.

Aralurdik pasa eta arropa metak han botata ikustean jendearen kexak zabaldu dira hondakin horren kudeaketa txarragatik. Sakanako Mankomunitateko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkiaranek argi eta garbi utzi nahi izan du Ziordian agertutako arropa ez dela Sakanakoa, Gipuzkoakoa baizik. "Sakanan arroparen kudeaketa egokia egingen dugu. Egia da Humana fundazioa Nafarroatik alde egitean egoera berezian gelditu garela, herrietan zeuden arropa biltzeko 25 edukiontziak kendu dituzte. Mankomunitatean konponbi-



Arropa metak Aralur enpresa zeneko pabilioian botata. UTZITAKOA

de jasangarria lortzeko lanean ari gara".

2025 urtea

Ordutik aurrera arropa bereizturik biltzea derrigorrezkoa izanen da. Gardek nabarmendu digunez, "arropa ez bada banatzen zabortegean lurperatzen da, eta horrek ondorio negatiboak ditu, alde batetik, ingurumenean, besteak beste negutegi efektu gas emisioak sortzen dituelako. Eta, bestetik, gure ekonomiari eragiten digu, zabortegean zenbat eta hondakin gehiagok bukatu

hondakindegia kudeaketa tasa handitu egingen delako. Eta zerga hori guztion artean pagatzen dugu".

Arropa birziklatzeko katean sartzeko Mank-ek gaur egun hiru aukera eskaintzen ditu: Arbizuko hondakindegira eramatea, astegunetan, 07:30etatik 15:00ak arte (google maps-en "Arbizuko Zabortegea"); arropa poltsa txiki bat bada garbigune mugikorrera eraman daiteke eta, bestela, arropa etxean jasotzea nahi duenak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake.



Irañetako Udal berria: David, Ainhoa, Odei, Sara eta Iñaki. UTZITAKOA

Bigarrenez emakumezko batek alkatetza eskuratu du

Ainhoa Beraza Maizak Juan Angel Beraza Gastesiri hartu dio lekukoa alkatetzan

IRAÑETA

Aurrenekoan hautagaitzarik ez zegoenez, Irañetako Udala bigarren deialdian osatu zen, azaroaren 17an. Udal agintari berriek larunbatean hartu zuten kargua. Bosten artean erabaki zuten alkatea Ainhoa Beraza Maizak hartuko zuela. Udalaren martxa aurrera eramateko aldamenean izanen ditu Jose Ignacio Arangoa Zia, Sara Lakuntza Sanchez, David Beraza Vitoria eta Odei Zabala Bengoetxea.

Alkate kargua hartu berritan Berazak azaldu digu ur biltegi berria egiteko lanak izanen direla aurreneko lehentasuna. Deialdia hutsik gelditu ondoren, bigarren bat egin du udalak. Lanen aurrekontua 187.121,9 eurokoa da (BEZ kanpo). Eraikuntza enpresek euren eskaintzak hilaren 15era arte aurkez ditzakete. Berazak azaldu digunez, Irañetako Udalaren beste lehen-

tasun bat herri-argiterian LED argiak jartzea izanen da. Lan hori heldu den urterako utziko dute. Eta alkateak jakinarazi digunez, udal ordezkari guztien artean banatuko dituzte ardurak, besteak beste, Irañeta Sakanako Mankomunitatean eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ordezkatzeko.

2011. eta 2015. urteen artean alkate izan zen Cristina Irigarai Beraza izan zen Irañetako estreineko emakumezko alkatea. Haren ondoren, Beraza bigarrena da, beraz.

Irañetako alkatearen aukeraketarekin, eta Iturmendiko Udalako Nafarroako Gobernuak kudeaketa batzordea izendatu bitartean, Sakanako 15 udaletatik lautan emakumezkoak dira alkate (% 26,66): Oihana Olaberria Jaka Arakilen, Silvia Marañon Chasco Etxarri Aranatzen eta Olatz Irizar Martinez Ziordian.



Iturmendiko aurkezpenaren ondoren jendeak liburuak sinatzeko eskatu zion Nicolas Arbizu Gabirondori.

Burundako mandazainen berri jakiteko, liburua

Nicolas Arbizu Gabirondok merkantzien garraioan ibiltzen zirenen berri emateko liburua aurkeztu zuen sorterrian eta Altsasun. Burundako gainontzeko herrietan ere aurkeztu nahi du; Bakaikun eta Urdiainen San Anton aurretik ahal dela.

ITURMENDI

Nicolas Arbizu Gabirondok *Burundako mandazainak* liburua aurkeztu zuen azaroaren 30ean. Aurretik, udan berreskuratutako Bernoako galtzadako zatia ezagutu zuten 25 bat pertsonak. Ondoren, udaletxean 70 pertsona elkartu ziren, Sakanako hainbat herrietakoek. Mandazainen ogibidearen berri eman nahi du Arbizuk buruarekin: "merkantziak batetik bestera mugitzen zituzten haiek hori baino zerbait gehiago badirelako". Guztia bost ataletan banatuta eman du.

Trenak, furgonetak eta kamioiak Sakanan agertu aurretik salgaiak batetik bestera abereen gainean edo abereek tiratutako gurditan eramaten ziren. Arbizuk azaldu duenez, populazioaren hazkundeak nekazaritzak, abeltzaintzak eta artisau-ogibideak denendako ez ematea ekarri zuen. Hala, Burundaren geografia-kokapena kontutan hartuta, merkataritza gune garrantzitsu bat sortu zen, zeren Arabaren,

Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean muga bat zegoen, bere aduana, mugazain, zerga eta bestelakoekin. Eta mandazainak ugaritu egin ziren.

Aletzen

Arbizuk mandazainen janzkeraren eta jatekoen berri ematen du. Baita erabiltzen zituzten abereena ere. Horrekin batera, bidelapurrei aurre-egiteko zer defentsa eramaten zituzten azaltzen du. Uda partean aritzen ziren batez ere. Barrualdetik kostaldera lekaleak, olioak eta ardoa eramaten zituzten eta bueltan kakaoa, kafea, espezieak, kafea, oihaletak eta beste ekartzen zituzten. Horretarako, bideak behar zituzten, galtzadak. Haiek

LIBURUA ELE BITAN ARGITARATU DU. ETXARRIKO KAXETAN ETA ALTSASUKO ARKATZEN DAUDE

non zeuden eta nola egiten eta mantentzen ziren azaldu du iturmendiarrak liburuan. Bide bazterrean zerga etxeak, bentak eta ostatuak kokatu zirela ere argitzen du. Mandazainek dirua egin zuten, batzuek asko (herri batzuetako ardoaren monopolioa zuten, hiriburuetan bitartekari ziren...). Eta horren lekuko dira Burundako herrietan dauden etxe puskak eta haietan dauden armariak (haiek jartzeko zer egin behar zen ere azaldu du Arbizuk). Arrakasta izan zuten merkataria haietako batzuen berri emanen duen liburua ere buruan du iturmendiarrak.

Mandazainek talde izaera ere bazuten, eta horren lekuko dira San Anton kofradiak. Haien berri jasoa dago liburuan. Mandazainak elkarrekin agintarien aurrean kexa bat baino gehiago aurkeztutakoak dira, zergak dirrela, edo galtzaden egoera dela eta, esaterako. Bidelapur, heriotza eta bestelako berri badakar. Baita ibilbideen mapa ere.



Sakanako erakunde omenduetako ordezkariak Sakanako DYAk buruarekin.

DYAk berarekin elkarlanean aritu direnei aitortza egin die

Sakanako DYAk 35 urte bete ditu eta berarekin lanean aritu diren erakundeei aitortza egin nahi izan zien

SAKANA

Nafarroako DYAk bere eguna urtero eskualde batean ospatzen du. Sakanako DYAk ibarrean 35 urte bete dituela baliatuta biak ospatzeko 60 bat pertsona elkartu ziren Altsasun azaroaren 30ean. Eta aukera baliatu zuen ibilbidean laguntza emandakoei esker ona azaltzeko: Etxarri Aranazko Udala (aurreneko egoitza), Altsasuko Udala (egungo egoitza), Aralar Mendi elkarte (Artzain Egunean 35 urtez egon da DYA), Aralar eta Burunda txirrindulari taldeak (lasterketetako osasun arreta DYAn esku uzteagatik) eta Sakana kooperatibari (11 urtetan bi anbulantzia oparitzeagatik). Aipamen berezia egin zioten Jose Antonio Sesma zenari. Etxarriarra hainbat urtetan boluntario izan zen eta joan den urtean hil zen. Sesmak hainbatetan gidatutako ibarreko aurreneko anbulantziaren errepika, haren senideek hartu zuten oroigarri gisa.

DYAn 20 eta 21 urte boluntario egin dutenei zilarrezko domina jaso zuten: Mariano Fortun Moral, Lidia Gonzalez Latorre, Constantino Gonzalez Urkizu, Alfredo Berasategi Berrocal, Ruben Liroz Azkona, Maria Liroz Azkona, Fermin Liroz Imaz, Eduardo Octavio De la Fuente, Enekoitz Berrueta Mañas eta Victor Gonzalez Barrutia.

Historia, labor

Bi ziordiarrek, Fernando Fustek eta Juan Jose Calvok, sortu zuten DYA Sakanan. Aurreneko egoitza

Etxarri Aranazko udaletxearen atzeko aldean egon zen, garai bateko espexxean. Gero medikua-ren etxea edo musika eskola izan zen eraikineren aldatu ziren. Gregorio Arostegi etxarriarrak emandakoa izan zen Sakanako DYAk izan zuen aurreneko anbulantzia, Sinca 1200 bat. Oinarri horiekin hasi zen DYA Sakanan zerbitzua ematen. Gero eta boluntario gehiago batu ziren eta horrela hainbat larrialdi egoeratan DYAkoe osasun zerbitzua eskaini zuten. Udalek emandako diruarekin furgoi bat erosiko zuten gero DYAk.

Erakundeak Etxarri Aranaztik Altsasura lekualdatu zuen egoitza. Bakea kaleko egungo egoitzan 10 urte egin ditu Sakanako DYAk. Aurretik Navarro Villoslada eskola izandako eraikinean izan ziren. Gaur egun 20 bat sakandar dira elkarteko boluntario (40 izatera iritsi da) eta elkarteko burua Alfredo Zelaia bakaikuarra da. 2007ko lastailetik Sakanako DYAk bi anbulantzia ditu. Eta horiei oinarritzko babesa emateko beste ibilgailua gehitu behar zaie. Suhiltzaileen eta Sakanan osasun garraiorako administrazio baimena duen Baztan-Bidasoa enpresaren ondoren lanean jartzen dira DYako anbulantziak, beti ere, Nafarroako Larrialdi Agentziarekin koordinatuta. Sakanan antolatzen diren hainbat kirol ekitaldi eta ospakizunetan presente izaten dira DYako boluntarioak, baita Larraungo eta Arabako Lautadako batzuetan ere.

Gazteek Intxostiapuntako plangintza osa dezakete

Proposamenak eta iradokizunak gazteria@altsasu.net eta intxostiapunta@altsasu.net e-posta helbideetan, 948 564 785 eta 608 617 778 telefonoetan, sare sozialetan, gazte gunean, batzarretan edo ikastetxeetako kutxetan egin daitezke urte akabera arte

ALTSASU

Altsasuko Udalaren Gazteria Batzordeak Intxostiapunta guneko programazioa osatzeko parte-hartze prozesua sustatu zuen joan den urtean. Hartan oinarrituta osatu dute aurtengo programazioa. Esperientzia egokia zela iritzita, aurten berriro gazteei zuzendu zaizkie batzordetik, gazte guneko 2020ko plangintza osatzeko asmoz. Gazteria teknikari Blanki Torresek azaldu digunez, "gure ustez, ezinbestekoa da gazteek parte-hartze izatea prozesuan, haien ikuspuntu, ardura, behar, kezka, interes eta abarrak gertutik ezagutzeko".

Torresek azaldu digunez, proposamenak jasotzeko prozesua "genero-ikuspegian oinarrituta" egingen da: "neskek eta mutilek egingen dituzten proposamenak agerian jartzeaz aparte, atal berdinetan sartuko ditugu, bi sexuen abiapuntuak eta behar zehatzak zein diren azaleratzeko. Horrela, ikuspegi inklusiboa,



Gazteek Intxostiapuntan bilduta. UTZITAKOIA

askotarikoa eta erreala lortuko dugu, batzuek zein besteek egingdako proposamenak jasoko dituen jarduketa-plana diseinatuzko". Gazte gunean zirriborroa egingen dute, eta azken oniritzia udalak emanen dio.

Batzordearen osaera

Udal ordezkariak, gazteria teknikariak, Intxostiapunta gazte guneko begiraleak eta gazte-berriemaileak osatzen dute. "Azken horiek funtsezko eginkizuna dute prozesuan".



Irailean egin zen ibilbide toponimikoa Jose Luis Erdoziarekin. ARTXIBOIA

Toki izenak jasotzen dituen liburuaren aurkezpena

Asteartean, 19:00etan, kultur etxean izanen da liburuaren aurkezpena. Ondoren auzatea izanen da

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko toponimia edo leku-izenak jasotzeko lana Jose Luis Erdozia Mauleonek abiatuta zuen. Baina Etxarri Aranazko Udaleko Euskara Batzordeak 2012an egindako plangintza zabaleko lan-ildoetako bat bilakatu zen. Hortik etorri zen lantalde bat sortzea, bilketa egitea eta, Euskaltzaindiaren oniritzia jaso ondoren, leku-izenak ofizialtzea. Azken hori garagarriaren 21eko 193/1993 Foru Dekretuaren bidez. Etxarritik sustatuta, oraingoak Nafarroako Gobernuak haiek biltzen dituen liburu argitaratu du:

Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala.

Erdoziak berak idatzi du liburu. Herriko dermioko 445 toki-izen ofizial jasotzen dira bertan, haietatik 228 toponimo nagusiak dira eta gainontzeko 157ak errotoriak. Izen ofizial bakoitzari honako informazio erantsi dio: herrian erabilitako beste aldaera batzuk, izenak oinarri duen dokumentazioa, izenari buruzko iruzkina, informazio osagarria eta toponimo bakoitzaren GPS-kokapena.



Udaltzain berriak astelehenaz geroztik

Altsasuko bost udaltzain berriek hartu zuten kargua abenduaren 4an. Jubilazioengatik azken bi urteetan bi laguntzaile besterik ez dira lanean aritu. Astelehenaz geroztik goiz eta arratsalde udaltzainak lanean ari dira, bi udaltzain txanda bakoitzeko. Javier Ollo Martinezek

azaldu duenez, "udaltzain faltak ordenantzak betetzea zaildu egin du orain arte". Trafikoa, garaje eta etxabeetarako pasabideak, txakur kakak eta beste aipatu ditu alkateak. Bestalde, Ollok jakinarazi du otsail akaberarako aukeratu nahi duela burua.

Santa Luzia ospatzeko festa hartuko du Ziordiak gaur

Herriko ospakizunak gaztetxearen 25. urteurrenaren ospakizunekin bat egiten du

ZIORDIA

Ziordiko Udaleko Kultur Batzordeak eta Ziordiko Gazte Asanbladak (ZGA) antolatu dute aurtengo Santa Luzia ospakizuna. Udalarik ZGA batu zaio gaztetxeak 25 urte bete dituelako. Horregatik, egitaraua herri bazkariarekin abiatuko da. ZGAK antolatu du eta 15:00etan izanen da. Bazkaldu ondorenerako musika eta bingoa (17:30ean) iragarri dituzte.

Urtero moduan Santa Luzia egunarekin ziordiarrek kalera ateratzeko poteoa izanen da,

19:30etik aurrera. Hala egiten dutenek lau geldialdi izanen dituzte: Urbasa taberna (txistorra), Etxaleku taberna (odolkiak) eta kalea (taloak). Laugarren geldialdian gaztetxea izanen da afari merienda eskainiko duena (urdaiazpikoa tomatearekin). Poteo hori alaitzeko herriko hainbat musikari ariko dira. ZGatik baserri-tarrez janzteko deialdia egin dute. Despeditzeko, 23:30ean, kontzertuak gaztetxean: Igitai eta Soinuz Blai (erromeria). Ondoren, gaupasa.

Jon Gurutz eta larriki gaixo dauden presoan alde

Orain Jon Gurutz lan-taldeak manifestazioa deitu du Etxarrin hilaren 27rako, 19:00etan

ETXARRI ARANATZ

Makina bat etxarriar elkartu ziren larunbatean Orain Jon Gurutz, larriki gaixorik diren presoak etxera leloa duen manifestazioa aurkezteko. Gaitz larriak eta sendaezinak dituzten 21 euskal presoetako bat da Jon Gurutz Maiza Artola etxarriarra. 69 urte ditu eta azken 12 urteak Frantzian preso egin ditu. Egun Lannemzango espetxean dago (300 km-tara). Maiza eta larriki gaixo diren euskal presoan askatasuna aldarrikatzeko hilaren 27an kalera ateratzera deitu zuten larunbatean. Aurkezpenean adierazi zutenenez, "konponbidean pausoak emateak euskal presoan korapiloa askatzea ekarri behar du". Horregatik, sakandarrak hilaren 27an Etxarri Aranazko manifestazioan parte hartzera deitu zituzten.

Orain Jon Gurutz lan-taldeak manifestaziorako atxikimenduak jaso ditu. Orain arte harekin bat egin dute: Etxerat, Etxarri Aranazko Udala, Sortu, Triku Trail, Etxarriko Gazte Asanblada, Ernai, Etxarri Aranazko LAB-eko delegatuak, AHT Gelditu taldea, Eusko Alkartasuna, EH Bildu, Arzabal, Karrikestu eta Udaberri elkartetako juntak, Sasoia eta Zama doinu arindu lan taldea.



Bosgarren edizioiko kartela auzatearekin aurkeztu dute.

Burdin barrak pentagrama bihurtzeko

Zama doinu arindu emanaldiak 5. edizioa izanen du ilbeltzaren 12an, 17:00etan eta 19:30ean, Etxarrin

ETXARRI ARANATZ

Bost urte dira etxarriar talde bat elkartu eta herriko sei presoan lagun eta senideak laguntzen hasi zirenean. Kontzertu-ikusizun bat zuten buruan: emanaldi batean kontakizun bat egitea, musika emanaldiekin tartekatuta. Horrela sortu zen Zama doinu arindu. Beti ere, "presoan senide eta lagunak ikusteko egin behar dituzten milaka kilometroek eragiten dituzten gastuak arintzeko". Eta, bestetik, "euskal presoek bizi dituzten eskubide urraketen salaketa" egiteko". Etxarri Aranazko kultur etxetik "ablesariak eta hainbat kultur espresioetako ezagunek disperzioaren kontrako konpromisoari bere ekarpena egiteko" aukera emanen ziena.

Bosgarren edizioan oholtzatik pasako diren musikariak dira: Anari, Esti eta Mikel Markez, Aiora eta Piti Zea Mayskoak,

Rotten XIII, Bad Sound, Haimar Arejita eta Keu Agirretxea, Anita Parker eta Juantxo Skalari.

Musikariekin batera kontzertu-ikusizunean izanen dira parte hartuko duten pertsona gehiago. Zama doinu arinduz lantaldetik jakinarazi dutenez, ilbeltzaren 12an parte hartuko dute: Aitor Merino, Jon Maia, Izaro Imaz, Oskar Lasa, Aitor Zubieta, Aritz Ganboa, Axi Estarriaga, Ainara Martin, Maider Iraurgi, Aritz Munarriz, Maria Goikoetxea, Juantxo Arakama eta Asier eta Araitz Jaka.

Etxarri Aranazko kultur etxeko bi saioretako baterako sarrerak 15 eurotan eskuratu daitezke, batetik, www.etxarriaranatz.eus web orrian, bestela, udaleko kultura bulegoan (astegunetan 09:00etatik 13:00etara) eta, azkenik, Xapatero eta Leku Ona tabernetan. Aurreko lau edizioetan sarrerak agortu egin dira.

Mauthausengo kontzentrazio eremua ezagutzeko erakusketa

Mauthausengo "hilketa eremura, 1939tik 1945era, 10.000 espainiar baino gehiago deportatu zituzten eta 2.000 inguru atera ziren bizirik aliatuek eremua 1945eko maiatzaren 5ean askatu zutenean. Han, gas kameretan eta erretze labetan, 150.000 europar inguru erail zituzten". Arturo Carreño Parrasen azalpenak dira. Bere ekimenez Mauthausenen berri

ematen duten 40 argazki ikus daitezke Kukua tabernan. Argazki horien egilea Frances Boix da, eremuan naziek zuten laborategian lan egin zuena eta argazkien milaka negatibo ateratzea lortu zuena".

Carreñoren osaba Jose eremuan bost urte eman zituen eta bizirik atera zenetako bat zen. Aldi berean, Carreño gogorarazi du Gusen-Mauthausenen hildakoen artean dagoela Victor Andueza Ranero (1906-12-09 / 1941-02-14) altsasuarra.



CAFi Jerusalemgo tranbia egiteko lortu duen kontratua uztea eskatu zuten.

Palestinarendako lurra, justizia eta askatasuna

Horiexek eskatu zituzten Palestinaren aldeko nazioarteko elkartasun egunean, azaroaren 29an

ALTSASU

Altsasuko Baratzekobide plaza-ko ekialdeko muturrean 10 urte egin ditu olibondo batek; Askapenaren Internazionalista egunean Palestinarekin elkartasunez landatu zen. Belardiaren beste aldean dago Sakanako Mankomunitatearen tren lokomotora, 9 urte daramana jarrita. Azken horren aurrean egin ziren Palestinaren aldeko nazioarteko elkartasun eguneko ibarreko ekitaldiak. Herrialde hartako Marda herriarekin 2005az geroztik dago Arbizu senidetuta. Bir Zeitekin Zestoa 2009an senidetu zen. Bateko eta besteko alkate Francisco Javier Razkin Flores *Rubio*, eta Mikel Arregi bertan izan ziren.

Arbizuko alkateak, Rubiok, hartu zuen hitza. Gogoratu zuen senidetuta zirela "beraien buruaren jabe izan nahi dute bi herriren arteko elkartasuna adierazteko eta, herri gisa, dagozkigun eskubideak borrokatzen jarraitzeko". Horregatik, lurra, justizia eta askatasuna aldarrikatu zituen.

Rubiok salatu zuenez, senidetu direnez geroztik "Israelgo Estatuak palestinar herriaren kontra ezartzen duen apartheid-a okerrera baino ez du egin". Arbizu alkateak israeldarrek egiten dituzten "etengabeko lurren lapurretak, legez kanpoko kokaguneez handitzea eta Israelgo Estatuaren inpunitate ukigabea" salatu zituen. Rubiok gogorarazi zuen 2005ean palestinarrek nazioarteari eskatu ziotela "okupazioarekin aberasten diren Is-

raelgo Estatuak eta nazioarteko enpresak Boikotatu, Desinbertitu eta Zigortu (BDZ kanpaina) ditzala, palestinarren giza eskubideak errespetatu arte: okupazioarekin bukatzea, eskubide berdintasuna ziurtatzea eta palestinar errefuxiatuen itzulera baimentzea.

BDZ

Kanpaina horrekin Euskal Herriko hainbat erakundek, sindikatuk, alderdi politikok eta pertsonak bat egin zuten 2012an, "herri palestinarren giza eskubideak eta nazioarteko legedia urratzen dituzten instituzio eta enprekin harremanak etetea eskatuz". Arbizu Udalak BDZ kanpainaren aldeko jarrera berretsi zuen eta erakunde, enpresa eta abarrei Boikotatu, Desinbertitu eta Zigortu kanpainarekin bat egiteko deia egin zieten.

Aldi berean, Palestinaren aldeko nazioarteko elkartasun egunean Goierriko CAF enpresari dei zuzena egin zioten: "Okupatutako Ekialdeko Jerusalem eta Zisjordaniako legez kanpoko koloniak lotuko lituzkeen tranbia eraikitzeke eskuratu duen kontratua bertan bera utzi. Nazioarteko legedia urratzen duen legez kanpoko proiektu horrek CAF enpresa pixka bat gehiago aberastu lezake, baina dudarik gabe, herri gisa pobretuko gaitu". Ekitaldia plazako lokomotorra eta olibondoa giza kate baten bidez lotuz despeditu zuten.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
949 460 037 Arbizu
949 460 411 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margolza**



1936an eraildako oroigarria.

Francok Uharteko seme kuttun izateari utziko dio

Heldu den astelehenean eginen den bilkuran udalak izendapena kenduko dio

UHARTE ARAKIL

Seme-alaba kuttunen izendapena kentzea. Hori da Nafarroako Gobernuaren Koordinazioko Batzorde Teknikoak Memoria Historikoaren arloan 2016an egindako gomendioetako bat. Eta betetzeko Nafarroako Memoria Institutuak 700 biztanle arteko herrietako udalen garai bateko aktak aztertu ditu. Eta horrela jakin dute Uharte Arakilgo Udalak Francisco Franco Bahamonde diktadorea herriko seme kuttun izendatu zuela. Frankismo betean hartu zuen erabakia Uharte Arakilgo Udalak: 1948ko otsailaren 5ean.

Nafarroako Memoria Institututik Uharte Arakilgo Udalarik jakinarazi diote izendapen hori indarrean dagoela eta hura baliogabetzeko eman beharreko pausoak azaldu zizkion. Horie segika, Uharte Arakilgo Udalak asteleheneko bilkuran izendapena indarririk gabe uzteko pausoak emanen ditu.

Uharte Arakilgoa ez da Franco diktadoreari herriko seme kuttun izendapena kendu dion Sakana-ko aurreneko udala. Aurretik Lakuntzako Udalak ibili zuen uhartearrek astelehenean ibiliko duten bidea. Izan ere, azaroaren 4tik Francok ez du inolako izendapenik Lakuntzan.

Euskaraldiak ekarri duen hitz berria: arigune

Erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kultur edota kirol elkarteak eta beste izan daitezke ariguneak. Uneoro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten espazioak dira, bai barruan, bai kanpoan

SAKANA

Euskaraldia betean geunden duela urte bat. Horregatik, 2018ko txapak armairutik atera eta berriro janzteko dei egin dute. Belarriprest eta ahobizi hitzak ekarri zizkigun Euskaraldiak joan den urtean. Jarra bat adierazten dute. Belarriprest rola hartzen dutenek ziurtatzen dute eurek euskara ulertzen dutela eta, horregatik, besteei euskaraz egin diezaioten eskatzen dute. Gero, agian, gaztelaniaz erantzunen du, baina belarripresten jarrerak elkarriketa elebidunak bermatzen ditu. Hau da, euskara gehiago hitz egitea.

Ahobizi rola hartzen dutenek, berriz, euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz eginen dute, uneoro. Gainera, ezagutzen ez dituzten pertsonekin topo egitean aurreneko hitzak euskaraz hitz eginen ditu, euskarazko elkarriketei bide emateko.

Hitz berria

Euskaraldia gure hiztegia beste hitz batekin berritu du: arigunea, "euskaraz aritzeko gunea". Horrela, euskararen erabilera handitzeko egindako aurreneko ariketa sozialean sumatutako gabezia bati erantzuna eman nahi zaio: entitateen parte hartze



Lakuntzarrak aurreko Euskaraldian antolatutako mendi irteerara abiatu aurretik.

falta. Hurrengo urtean edozein entitatek parte hartu ahalko du Euskaraldian. Arigune izateko aukera izanen du. Entitate horietako kideek erabakiko dute belarriprest edo ahobizi izan eta Euskaraldiak iraunen dituen 15 egunetan euskararen erabilera handitzeko ariketa modu kolektiboan eginen dute euren arigunean, dela administrazio publikoa, gizarte eragilea, enpresa, kultur edo kirol elkarte.

Euskaraldiko arduradunek bi motako ariguneak egonen dira. Batetik, barne-ariguneak. Enti-

tate barruan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Izan daitezke udal bateko zerbitzu bateko langileak, enpresa bateko ekipo edo sail bat, elkarteko zuzendaritzakoak... Barne-arigunea izatea ez du entitateak erabakiko, baizik eta hura osatzen duten pertsonak. Borondatez, modu kolektiboan, euren arteko hizkuntz-ohiturak aldatzeko aurrera pausoak ematea adostu duten pertsonak izanen dira. Barne-arigunea izateko gutxienez kideen % 80 ados egin

behar du. Gainera, kide bakoitzak erabakiko du belarriprest edo ahobizi izan.

Kanpo-ariguneak ere izanen dira entitateetan. Horiek herri-tarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute. Horrela, entitate horretara joaten diren pertsonak uneoro euskaraz artatuak izateko bermea izanen dute. Esaterako, administrazio-ko leihatiletako batean, hipermerkatu bateko kutxetako batean, telefono bidezko arreta zerbitzuetan, tabernetan edota dendetan beti belarriprest bat edo ahobizi bat jarritz.

Entitateak, izena ematera

Harremanetan euskararen erabilera handitu nahi duten entitateek izena eman beharko dute Euskaraldian. Horretarako, hori bai, aurrena euren entitatean arigunea izan daitezkeen taldeak identifikatu beharko dituzte. Arduradunek eta ariguneko kideek ariketa egitea adostu beharko dute eta hori egin ondoren eman daiteke izena. Izen emateko epea hilabete honetan zabaldu da eta heldu den urteko gari-lera arte egonen da zabalik. Jakina, hizkuntza-ohituren aldaketa eta ariketa bera gauzatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu entitateak 2020ko azaroaren 20an Euskaraldia hasi aurretik.

Egon daiteke entitateen parte hartu nahi baina baldintzak betetzen ez dituztenak. Antolakuntzatik bi proposamen egin dizkiete. Aurrena, Euskaraldiaren datozen edizioetara begira aurrera-pausoak ematea. Eta, atzena, entitate barruan belarriprest eta ahobizi gisa Euskaraldian parte hartuko duten kideen ariketa babestu eta sustatzea.

BILTOKI
TERRAZA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Asteleheneetik ostiralera
**Eguneko menua
10€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jatetxea

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restauranteikaixo.com

PORTUKO
30 URTE
Ogia egiten

**Eguberritako
postrerik onenak!**

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdain: 948 563 763



Satrustegiko eliz dorrea uzta bildu gabeko eta uzta jasotako soro artean garilean.

Abereendako bazka ereindakoetan nagusi

Ibarreko abeltzainek eta nekazariak Europako Nekazaritza Politika Bateratura 7.232,73 hektarea deklaratu dituzte. Kopuru horren hirutik bat arakildarrena da. Azaleraren tamainan Ergoiena eta Uharte Arakil dituzte atzetik

Hydron soldata arrakala murrizteko bide orria

LABek eta greba batzordeak deitutako lanuzteak bertan behera gelditu dira. Langileen kategoriak egokitu eta soldatak berraztertuko dituen prozesua abiaraziko dute "justuagoa izan beharko duen soldata sistema bat lortzeko"

IRURTZUN

Hydroko langile batzuk enpresaren parean *lan bera, soldata bera* leloa zuen pankarta eskutan zutela. Hala egon dira azaroan eta abenduaren hasieran. 8 egunetan lanuzteak eta mobilizazioak egin dituzte. LABek eta greba batzordeak enpresako soldaten parekatze progresiborako aldarrikapenari abenduan eman nahi zitoten segida, beste 32 ordu geldituz. Izan ere, gaur egun Hydron lan bera egiten duten lankideen arteko soldata desberdintasuna urtean 5.000 edo 6.000 euro artekoa da. Hilean 1.200 euro kobratzera iristen ez diren langileak daude.

Helburu hori lortzetik gertuago daude gaur egun langileak. LAB sindikatuko Gaizka Uhartek jakinarazi digunez, "Hydron akordiorako baldintzak sortu dira, enpresak LABekin prozesu bat adostu baitu. Prozesu horren helburua soldata arrakalarekin progresiboki bukatzea izan behar du eta langile guztiak egiten dituzten funtzioak argitu eta aitortzea". Uhartek azaldu digunez, "hurrengo asteetan enpresa batek lanpostuen balorazioa egingen du. Behin balorazio eginda, kategoriak egokitu eta soldatak berraztertuko dira. Prozesua uda baino lehen despedituta egon beharko luke".

LABeko sindikalistak Hydroko lanuztea "eredugarria" izan dela nabarmendu digu: "langile prekarioek eta egoera hobean dauden asanbladan batzea lortu dugu, enpresa batzordean dauden UGT (2 delegatu) eta CCOO (4 delegatu) sindikatuek gehiengo duten arren eta grebarekin bat egin ez duten arren, LABek (3 delegatu) eta greba batzarrak enpresa baldintzatzea lortu dugu". Uhartek gaineratu duenez, "harrero gaude, borrokak elkartasuna zuelako oinarri eta baldintza berriak sortu ditugulako. Etor-kizunean akordiorik lortu ezean, berriro ere borrokari ekingo diogu".

SAKANA

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak emandako datuen arabera, Europako Nekazaritza Politika Bateratura (NPB) ibarrean deklaraturakoen % 77,26 abereendako bazkarako ereindakoak izan dira. 5.587,9 hektarea horien barruan daude alpapa, larre iraunkorrak, zuhaixkadun eta zuhaizdun larreak, espezie pratenseen sail mistoak eta raygrasa.

NPBra sakandarrek aitortutako artean hurrengo azalera handiena duena beste baso erabilerak da % 8,45 (611,21 hektarea). Azalera handiak hartu dituzten laboreen artean daude artoa (% 6,98 eta 504,97 hektarea), gari biguna (% 2,12 eta 153,69 hektarea), garagarra (% 1,48 eta 107,22 hektarea) eta oloa (% 1,18 eta 85,17 hektarea). Europako dirulaguntzetarako Sakanan aitortutako gainontzeko azalera tamaina txikikoak dira eta % 2,53 besterik ez dute hartzen, 182,57 hektarea. Tartean daude: gereziondoa, txipuak, oskoldun fruituak, ilarra, baba, baratza, sagarrondoa, zalke eta olo nahasketak, intxaurrendoa, olibondoa,

nekazaritza edo baso ez diren beste erabilerak.

NPBrako ibarrean aitortutako azalera ia bostik lau aberei jaten emateko da. Zatiarik handiena bost urte edo gehiago dituzten larre iraunkorrek hartzen dute (% 63,61 eta 4.600,81 hektarea). Azaleraren tamainari erreparatuta honakoa da segida: raygrasa (% 5,91 eta 427 hektarea), bost urte baino gutxiago dituzten larreak (% 2,28 eta 164,65), zuhaixkak dituzten larreak (% 1,75 eta 126,6 hektarea) eta espezie pratenseen sail mistoak (% 1,6 eta 115,72 hektarea).

Herrika

Sakanan aitortutako %30,1 Arakildarrena da. % 10eko muga gainditzen duten herriak dira Ergoiena (% 14,99) eta Uharte Arakil (12,79). % 5aren gainetik daude Etxarri Aranatz (% 8,2) eta Altsasu (% 6,02). Urdiainek Sakanan deklaraturakoen % 4,34 du. Eta segidan heldu dira Arbizu (% 3,76), Olatzagutia (% 3,54), Ziordia (% 2,87), Irañeta (% 2,84), Lakuntza (% 2,69), Arruazu (% 2,42), Iturmendi (% 2,28), Bakalku (% 2,2) eta Irurtzun (% 0,88).

Ikastolek lan hitzarmen berria sinatu dute

Ikastolen ordezkariak "Lan Hitzarmen hau adosteko aldeek erakutsi duten borondatea" azpimarratu dute

SAKANA

Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) eta gehiengo sindikala duen LAB sindikatuko ordezkariak lan hitzarmen berria astelehenean sinatu zuten, 2019. urteari dagokiona. "2008-2010 eperako izenpetu zen azken Lan Hitzarmena Nafarroako ikastoletarako. Bederatzi urte igaro dira, beraz, ikastolek Lan Hitzarmen berri bat edukitzeko. Horregatik, aldeek izenpetutako hitzarmenak balio berezia du". Hitzarmenak Nafarroako 15 ikastolei eragiten die, Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritzta barne. 732 langile dituzte ikastolek eta 6.361 ikasle, Sakanan 751 eta 99.

NIEko ordezkariak azaldu dutenez, "hitzarmenak maiatzean sinatutako Lan Akordioan hitzartutako puntuak biltzeaz aparte, atal nagusiak eguneratu eta berriro dira. Hitzarmenak

langileentzat hobekuntzak biltzen ditu". Gainera, ikastola guztietan berdintasun planak bultzatzeko konpromisoa ere martxan jarri dute. "Jaiotza-tasaren beharadaren ondorioz ikastoletan gelak itxi beharko balira, ikastolek borondate irmoa dute, orain arte egin bezala, lanpostuei eusteko, eta hitzarmenean xede horretarako lan batzorde berezi bat osatzea ere aurreikusitua da".

Esan dutenez, "ikastolen egin-kizunean eta xedean zehazten den moduan, irakasleek eta langileek osaturiko lan taldea gaxoa da Ikastolen hezkuntza proiektuaren erronkak aurrera ateratzeko, eta haiendako lan baldintzarik onenak nahi dituzte ikastolek". Lan Hitzarmenak "ikastolek heldu diren urteetan izanen dituzten erronkei lan baldintzarik egokienetan erantzun ahal izateko" tresna izanen da.

Emakumezkoen arretarako protokoloa sinatuta

Udaltzaingoak koordinazio eta informaziorako VioGen Sistemara sarbide izanen du

ALTSASU

Altsasuko Udalak 2019-2023 aldirako II. Berdintasun Plana onartu zuen lastaileko bilkuran. Haren barruan kokatzen da genero indarkeriaren biktima diren emakumezkoen polizia arretarako elkarlan protokoloa sinatzea. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, protokoloak "Altsasuko Udaltzaingoak arlo horretan egiten zuen lana sendotzen du, espezializatutako sekzioak dituzten gainontzeko segurtasun indarrekin etengabeko koordinazioan izanen da".

Sinatutako protokoloaren ondorioz, Altsasuko Udaltzaingoak VioGen Sistemara sarbidea izanen du. Alkateak azaldu duenez, "genero indarkeriaren biktimen banakako jarraipen eta ebaluaziorako koordinazio eta informazio eguneratuko tresna da". Baina sistema horretara sartzeko beste bi pauso eman behar ditu Altsasuko Udalak. Aurrena, Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren Etxeko eta Genero Indarkeriako Biktimen Baberako Estatuko Segurtasun Indarren arteko Elkarlan eta Koordinazio Protokoloarekin bat egitea. Eta, atzena, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritzan eskatzea Genero Indarkeria kasuen Jarraipen Integralerako Sistemari (VioGen) bat egitea.

Hiru pausoak betetzen direnean, Barne Ministerioaren eta Altsasuko Udalaren arteko hitzarmena sinatuko da eta, horrela, Altsasuko Udalak VioGen Sistemara sarbidea izanen du. Azken hitzarmen hori Espainiako Gobernu Ordezkariek eta Altsasuko alkateak sinatuko dute. Baina horra iristeko aurreneko pausoa azaroaren 15ean eman zuten Foruzaingoaren buruak, Policia Nacionaleko Nafarroako goi buruzagiak, Guardia Civileko Nafarroako koronel buruak eta alkateak.



Eguzki plakak frontoian.

Eguzki plakak eskola argindarrez hornitzeko

Ikastetxeak duen argindar eskaeraren % 75 beteko du eta 57 tona CO2ren isurketa saihestuko du

IRURTZUN

Frontoiko teiltuan, hegoaldera begira, eguzki plakak jarri dituzte. Udalak 60.400 euroko inbertsioa egin du. Dirutza horretatik 33.220 euro Ekonomia Garapenaren Departamentuaren dirulaguntza da, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak ezartzeko deialdikoak. Azpiegitura hori Atakondoa eskola publikoa, kiroldegia eta frontoia hornitzeko erabiliko da. Gaur egun hiru udal azpiegitura horien energia kostua 22.045 eurokoa da eta udaleko teknikarien kalkuluen arabera azpiegitura berriarekin urteko 14.500 euro aurreztuko dira. Beraz, egindako inbertsioa lau urtetan amortizatuko du udalak.

Jarritako panel fotovoltaikoak 64.680 kw-ekoak dira eta urtero 80.900 kw energia sortuko du. Ikastetxearen, kiroldegiaren eta frontoiaren gaur egungo energia kontsumoa 110.619 kw-ekoa da. Beraz, eguzki plakak eskolak beharrezko duen argindararen % 73,13 sortuko du. Horrela CO2 isuriak 72 izatetik 15 izatera pasako dira. Aitor Larraza Carrera alkateak gogorarazi duenez, argindar faktura eta negutegi gasen isurketa murrizteko udaletxeari buruzko ikerketa eginen dute, lanak 2020an egiteko.

hezkidetzan hezi, berdintasunean bizi

Jostailu bat aukeratzekoan haurraren nahiak eta gustuak kontuan hartu behar dira baina haien sexuak aukeraketa horretan eraginik izan gabe.



Nola?

hona hausnarketarako galderak:

- * Haurraren adinerako egokiak dira?
- * Seguruak eta dibertigarriak dira?
- * Inor baztertu gabe, edozein umerentzat egokiak dira?
- * Generoaren ikusmolde estereotipatua eta sexista transmititzen dute? (hau da, haurren jokabidea haien generoaren arabera izatea bultzatzen dute? Edo ez?)
- * Gaitasun indibidualak (pentsatzeko gaitasuna, irudimena, sormena edo jakinmina) eta sozialak (komunikatzeko, laguntzeko edo besteen tokian jartzeko gaitasunak) sustatzen dituzte?
- * Sexu eta kulturen arteko desberdintasunak errespetatzen lagunduko du?
- * Gatazkek modu sortzailean bideratzea, parte-hartze parekidea, neska-mutilen arteko lankidetzaharremanak eta antzekoak sustatzen dituzte?
- * Indarkeriazko portaerarik bultzatzen du edo bestelako baloreak bultzatzen lagunduko du?



Mank
s a k a n a





Jaiotzetan pertsonaia ugari ikusi ahal izango dira. MIREN ARREGI OLIVENZA

Jaiotzen erakusketa, beti bezain ikusgarria

Ilbeltzaren 6ra arte ikusgai dago: astegunetan 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igande eta jai egunetan 13:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:00etara

OLATZAGUTIA

Eguberrietako hitzordu finkoa da Sakanako belenzaleen elkarteak antolatzen duen erakusketa. Aurtengoa 19. edizioa da eta dozena bat jaiotzek osatzen dute. Haietatik zazpi berriak dira. Haiek sortzeko elkartekideak bateko eta besteko etxeen argazkietan oinarritu dira. Gainontzeko bost jaiotzak aurretik eginak zeuden, baina moldaketak egin dizkiete ikusgai jarri aurretik. Langintza horretan aritu dira Patxi Agirre, Javier Beunza, Luis Borrega, Saturio Flores, Emeterio Galan, Jesus Mari Garmendia, Katy Mayor, Felipe Orabengoa eta Paco Sanz. Jaiotza batzuk banaka egin dituzte, besteak talde lanean.

Dentsitate desberdineko ponespanari forma emateko ezta inua urtzeko gailuarekin eta laban zorrotzekin landu dute lehenik eta behin betiko itxura margo, kola, goroldioarekin eta, jakina, irudixoeekin jantzi dute. Erakusketa igandean mustu zuten, bai-

na hura prestatzeko elkarteko kideak otsailaz geroztik aritu dira lanean. Gainera, euren lana ez da bakarrik Olatzagutian ikusgai. Aurreko urteetan egindako zortzi jaiotza aurrean, esaterako, Tafallan ikusgai daude, uholdeek hango belenzaleen egoitza txikitu baitzuen.

Makina bat jende bisitatuko du erakusketa eta, aurrean ere, sakandarrez aparte izanen da estatutik etorriko denik. Esaterako, larunbatean, asturiastik etorritakoak izan ziren bisitan. Elkartekideak asteazkenean Kataluniara joanen dira eta bi egunetan jaiotzen sei edo zazpi erakusketa ikusiko dituzte. Bestetik, Olatzagutian Katalunia, Madril edota Anda-

**SAKANAKO
BELENZALEEN
ELKARTEA
LAGUNTZEKO MODUA
BAZKIDE EGITEA DA**

luziatik etorritako belenzaleen bisitak espero dituzte. Bisitari guztiek elkarte laguntzeko bazkide egiteko aukera izanen dute. Gaur egun 40 bat kide ditu Orabengoa buru duen elkarteak.

12 dioramak

Jesusen, Mariaren eta Joseren dozena bat pasarte jasotzen ditu erakusketak, bakoitza 5 metro karratuko azalera: Ama Birjinaren berri ematea; Erroldatzea; Ostaturia bila; Jesusen jaiotza; Jesusen haurtzarora; Artzainei berri ematea; Artzainen adorazioa; Erregeen kabalgata; Errege Magoen adorazioa; Lehen urratsak; Egiptora ihesa eta Zurgindegia.

Ikastaroa

Jaiotzen erakusketa miretsirik begiratu eta gero, halako artelanak egiten interasa duenak aukera izanen du, Sakanako belenzaleen elkarteak jaiotzak egiteko ikastaroa antolatuko baitu. Erakusketan eman daiteke izena.



Umea aparra eskutan eta orraziak eskura dituela, elkartearen egoitzan. BIAK BAT

Biak Batek aisialdi inklusiborako ikastaroa emanen du

Izen ematea hilaren 16ra arte dago zabalik psicologia@biakbat.eus e-postan edo <https://labur.eus/QElo>

ALTSASU

Behar bereziak dituzten eta ez dituzten haurren arteko erlazioak sustatzeko helburuarekin, Biak Bat elkarteak Kontatu Nirekin animaliek lagundutako aisialdi inklusibo programa prestatu du, Altsasuko Udalaren laguntzaz. Josune Azpiroz Imaz elkarteko psikologoak azaldu digunez, "haurrak aniztasunean hezten badiugu, ondoren ez diegu inklusibitateaz hitz egin behar. Ideia hori gauzatu behar dela uste dugu. Gure helburua da espazio eta denbora partekatzea bai aniztasun funtzionala edo zailtasun soziala duten haurrak eta ez dutenak". Argitu digunez, "Eguesibarren 3 urtez eman dugu programa eta geroz eta eskaera handiagoa du". Azpirozek gaineratu duenez, "batez ere, beharrak dituzten haurren familiek asko baloratzen dute, ez baita egoten herrian horrelako aukerarik".

Azpirozek argitu digu Altsasuko haur eta gazteei zuzenduta dagoen animaliek lagundutako aisialdi programa dela. "Animalien bitartez aniztasuna, enpatia, aukera berdintasuna eta animaliekiko errespetua eta zaintza landu nahi ditugu. Taldeka, jarduera dinamikoak, parte-hartzaileak eta jolasetik, animalien erlaziotik abiatutakoak dira". Gosari osasuntsuak ere parte-hartzaileek prestatzen dituzte. Elkarteko psikologoak jakinarazi duenez, haur (6-12 urte, 10:00etatik 11:30era) eta gazteen (13-18 urte, 12:00etatik 13:30era) taldeak sortuko dira eta talde bakoitzarekin bina saio egingen dituzte. "Saioak txakurrak ezagutu eta haien zaintza, maneio eta tratuan oinarrituko dira. Hamaiketako egingen dugu, taldekako giroa eta gizarte harremanak, elikadura osasuntsua eta autonomia sustatzeko eta lantzeko".

Zangotzarra aldizkariak Aierraren berri eman du

Zangotzarra aldizkariaren 23. zenbakia aurkeztu zuten ostegunean. Zangozako merinaldeko eta bertako pertsonen historia jasotzen du aldizkariak. Azken alean zazpi egilek artikulua bana idatzi dute. Horien artean dago Rafael Blanco Arbe, Guaiexeko Raf Atxuri kolaboratzailea. Blacok *No me avergoncé del Evangelio (desde mi parroquia)*. Noti-

cia del libro del lumbierino-alsuarra Marino Ayerra izenburuko artikulua idatzi du aldizkari-rako. Hartan Blacok liburuaren sorrera, argitaratzea eta banatzea hartu ditu hizpide. Horrekin batera, Aierrak Manuel Irujori igorri zizkion gutun batzuk, Constantino Salinasek egin zuen iruzkina eta Martin Soler Zangitu altsasuarrak liburuaren hedapenean eduki zuen ezinbesteko zeregina hartzen dira hizpide. Aldizkaria Altsasuko Arkatz liburu-dendan eskuratu daiteke.

Jakak eta Zabaletak buruan jarraitzen dute

PILOTA Binakako lehen hiru jardunaldiak irabazi dituzte. Ezkurdia-Martijak puntu bakarra dute

Binakako Pilota Txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan eta sakandarrak elkarren kontra aritu ziren leporaino beteta zegoen Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ezkurdia eta Martija Jakaren eta Zabaletaren kontra.

Partida oso gogorra eta gorabeheratsua izan zen. Ezkurdia eta Martija dominatzen hasi ziren, baina Jakak eta Zabaletak zarpina berdindu zuten. Hortik aurrera bi bikoak paretsu ibili ziren. Lehia izugarri gogortu zen, 19 eta 15 aurreratu ziren bi sakandarrak, baina Jakak lau tanto egin zituen segidan eta 19na berdindu eta segidan 19 eta 21 aurreratu ziren Jaka eta Zabaleta. Azkenean, 20 eta 22 gailendu ziren.

Hiru puntu dituzte Jakak eta Zabaletak eta Binakako Txapelketako lider dira, Artola-Imazekin puntura berdinduta. Ezkurdia eta Martijak puntu bat dute, gainontzeko bikoak bezala.

Gaur, ostirala, Urretxun, Ezkurdiak eta Martijak Bengoetxea eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari (ETB1) eta igandean, Eibarko Astelenan, Jaka eta Zabaleta Lasoren eta Albi-suren kontra ariko dira (17:00, ETB1).

Amaia Jaka lau eta erdiko txapelduna

PILOTA Laboral Kutxa Emakume Master Cup Lau T'erdiko pilota goxuko promozio mailako finala irabazi zuen Ihabarko pilotariak, Ainhoa Ruiz de Infanteri 22 eta 8 irabazi eta gero

Maidar Betelu Ganboa IHABAR

Txikitan pilotan ibili zen Amaia Jaka, Irurtzun Pilota Klubean, 14 urtera arte. Orduetik aurrera mutilekin ezin zen lehiatu, eta pilota utzi zuen. Orduetik pilota utzia zuen, baina joan zen urtean, Emakume Master Cup txapelketako antolatzaileetako baten, Iker Amarikaren, deia jaso zuen Ihabarko 26 urteko gazteak, eta San Ferminetako Torneoan parte hartzeko gonbitari baiezkoa erantzun zion. Horren ondotik, Emakume Master Cup Lau T'erdiko Txapelketan izena ematea erabaki zuen, atzera ere Irurtzun Pilota Klubean federatu eta gero. Eta erabaki bikaina hartu du Ihabarko pilotariak, azaroaren 30ean Otxandion jokaturako pilota goxuko promozio mailako finala irabazi eta txapeldun handia baitugu Amaia Jaka.

Jakak Otxandioko Ainhoa Ruiz de Infante izan zuen aurkari finalean. Final zaila aurreikusuten zuen Ihabarkoak, Ruiz de Infante "oso pilotari bizia" iruditzen zitzaiolako. "Nire dohainak aprobetxatu beharko ditut. Uste dut ezkerrekin min handia egiten dudala eta dohain hori oraindik ez dudala galdu" adierazi zuen finala jokatu baino lehen. Eta dohain hori primeran erabili zuen finalean.



Amaia Jaka, finalean atsedena hartzen. EMAKKUME MASTER CUP

Ruiz de Infanteri guztiz gailendu zitzaion

Otxandioko pilotalekua txiki geratu zen Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup promozio mailako finalerako. Sekulako giroa zegoen, 600 pilotazale inguru. Gehienak, jakina, Ainhoa Ruiz de Infante herritarraren aldekoak ziren. Baina horrek ez zuen Amaia Jaka kikildu.

Ruiz de Infantek ongi ekin zion partidari eta abantaila lortu zuen partidaren lehen txanpan, 0 eta 7 aurreratu baitzen. Baina

Ihabarko aurrelariak kantuan bere lekua aurkitu zuenean, berehala lortu zuen partidaren agintea. Zarpina berdindu zuen Jakak, eta hortik aurrera ez zuen inolako arazorik izan txapela janzteko.

Sakandarrak postura guztiak maneiatzen dituela erakutsi zuen, tantoa amaitzen ere bikain asmatu zuen eta onenekin lehiaztzeko moduan dagoela erakutsi zuen. Azkenean, 22 eta 8 irabazita, merezitako txapelduna da Amaia Jaka eta ibilbide oparoa du esku pilotan.

"Txapelak ilusio handia egin dit"

AMAIA JAKA
PILOTARIA

Zer moduz joan zen Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup promozio finala?

Ongi. Ainhoa Ruiz de Infanteren kontra galtzen hasi nintzen, 7 eta 0. Sakeren bat egin zidan eta nik baten bat galdu nuen. Atsedean hartu nuen, eta hortik aurrera ia zuzenean joan nintzen 22ra. Tantoak bukatzen asmatu nuen eta ez nuen pilotarik galdu. Azkenean, 22 eta 8 irabazi nuen.

Merezitako txapelduna zara...

Egia esan, txapelak ilusio handia egin dit. Txapelketan izena eman nuen pilotarekin disfrutatzeko eta berriz ere txikitan izandako oroitzepe-nak gogorarazteko. Horrenbeste urte jokatu gabe egon eta gero, ez nuen uste finalera iritsiko nintzenik. Otxandioko frontoia beteta ikustea eta pilota zale guztien aurrean jokatzeko oso polita izan zen, eta ni horrekin geratzen naiz. Pozik nago.

Zein izango da parte hartuko duzun hurrengo pilota txapelketa?

Uste dut Binakakoa izango dela, Binakako Emakume Master Cup txapelketa. Entrenatzen jarraitu eta disfrutatu, hori da helburua.

ABENDUAK 24 ETA 31RAKO

Enkarguak jasotzen dira

ETA URTERO BEZALA EGUN HAUETAN,
GURE OGI BEREZIA
HARRIZKO LABEAN EGINA

ZUREN 1964 GEROZTU

Amaya

OKINDEGIA

<p>OLAZTI 948 468 755 • Orreaga Kalea, 1</p>	<p>ETXARRI-ARANATZ 948 461 660 • Kale Nagusia, 4</p>	<p>ARAIA 945 314 572 • Aedoni Urrestarazu, 3</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ 945 148 388 • Arriagako Aldea, 12</p>
<p>ALTSASU 678 323 403 • Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026 • Zamalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017 • San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185 • Otadiko Kristo Deuna, 19</p>

Urdiaingo Ziklo-Krosa jokatu da bihar

ZIKLO-KROSA Larunbatean, goizeko 11:00etan kadeteen proba hasiko da eta 12:00etan juniorrena. Burunda klubak antolatu du proba, Benigno Mendia "Kani" Memoriala izango dena, eta Urdiaingo futbol zelaia ardatz izango duena

Aspaldiko partez ziklo-kros proba bat hartuko du Sakanak. Burunda Txirrindularitza Taldea izan da pausua aurrera ematera animatu dena eta bihar, larunbata, Urdiaingo Ziklo-Krosa-Benigno Mendia "Kani" Memoriala izango da jokatu dena. Garai batean ziklo-krosean ibiltzen zen Benigno Mendia zena, eta berari esker makina bat lasterketa antolatu ziren Urdiainen, Euskadiko Ziklo-Kros Txapelketa tartean. Bada, berriro ere kirol ikusgarri honetaz gozatzeko aukera izango da Urdiainen. Aitziber futbol zelaia ardatz hartuta, ibilbide polita prestatu du antolakuntzak eta kadeteak izango dira goiztiarrenak, goizeko 11:00etan abiatuko baitira. Eguerdian juniorren proba hasiko da eta gauzak ongi, 13:00etan Aitziber elkarte parean sari-ematea hastea aurreikusten du antolakuntzak.

Guztia prestatzen buru-belarri ari dira Burunda klubekoak. "Azkeneko xehetasunekin gabiltza. Pikete guztiak jarrita, ostiralean azken errepasoa egingo dugu eta larunbataren zain gaude" azaldu digu Burundako Gorka Mintegik. Ostiralera bitartean euria iragartzen zuen eguraldi iragarpenak eta larunbaterako, aldiz, ez dute euria aurreikusten. "Lokatx nahikoa egongo da, eta txirrindulariak pasa ahala, gero eta lokatx handiagoa. Baina hori ez da arazoa, hori baita txirrindulariei gustatzen zaiena" gaineratu du Mintegik.

Ibilbidea, futbol zelaia ardatz

2 km pasatxoko zirkuitua prestatu dute Burundakoak. Lasterketa Bentan hasiko da, Urdiain behealdean, eta tropela frontoiraino igo ondoren, ezkerrean egin eta Aitziber futbol zelaira sartuko da. Hango larreetan itzuliren bat eman ondoren, gora egin eta Kamiozar kaletik he-



Antzeko ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da bihar Urdiainen. BURUNDA

"ZIKLO-KROSA OSO KIROL IKUSGARRIA DA ETA JENDEA URDIAINERA GONBIDATZEN DUGU"

rrira sartu eta parkeraino iritsiko dira; partzelarian aurrera egin eta, larreetan sartu eta behera eginez, atzera ere futbol zelai parera agertuko dira txirrindulariak. Beheraino jarraituko dute eta Sagardia kaletik Urdiaingo sarrerako kalera agertuko dira; Frontoi parean egongo da helmuga. "Denetatik du zirkuituak: asfaltoa, belarra eta pista. Futbol zelaiaren atzealde horretan dago zirkuituko eremurik gehiena; bertatik ia dena ikusten da. Futbol zelaiaren enborrak jarri ditugu, txirrindulariek salto egin dezaten, eta futbol zelaiaren gora behera ibiliko dira txirrindulariak. Ikusteko lasterketa polita izango da" gaineratu du Burundakoak.

Duela hiru urte Burundako txirrindulari batzuk ziklo-krosean aritzen hasi ziren, eta aurreko proba antolatzea erabaki

zuten. "Badakizu, gauza batek bestera eramaten du eta lasterketa antolatu dugu. Errudun nagusienak Pedro Iparragirre eta Jesus Mari Mazkarian dira. Baietz, ezetz, ezetz, baietz... eta azkenean hemen gaude. Zergatik Urdiainen? Bada, Urdiainen txirrindularitzarekiko zaletasuna dagoelako eta egun ziklo-krosean bi urdiaindar ari direlako. Kontuan hartu behar da ere, Benigno Mendia, "Kani", Sakanan ziklo-krosean ibili zen aurrenetarikoa izan zela, eta polita irudituz zitzaigun berari aitortza bat egitea" aitortu digu Mintegik.

Kadeteak eta juniorrak

Urdiaingoa kadeteen eta juniorren lasterketa izango da. "Lasterketa antolatzen dugun lehengo urtea da hau, eta horregatik bi kategoria hauekin hasi gara, ez ditugu eliteak eta masterak sartu. Hasteko nahikoa dugu. Gero ikusiko dugu beste pausu bat aurrera emango dugun ala ez" dio Mintegik. Pena da Urdiaingo lasterketak Valentzian jokatu den Espainiako Ziklo-kros Koparako baliagarria den lasterketarekin bat egitea. "Hain-

bat txirrindulari bertara joango dira, Sakana Group-Aralarko Igor Arrieta eta Aimar Tadeo artean, eta pena ematen digu. Baina ziklo-kroseko egutegia nahiko estua da, eta ezin da ezer egin. Beraiek kenduta, gainontzeko sakandarrak ariko dira: Burundako gure 5 txirrindulariak, Iker Mintegi, Oihan Etxeberria, Jon Chamorro, Mikel Uncilla eta Mikel Regil; Sakana Groupeko Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia eta Nafarroa Ermitagañako Nahia Imaz" aipatu du Gorka Mintegik. Mintegik azaldu digunez, Burunda eta Aralarko txirrindulariak ziklo-krosean elkarrekin entrenatzen hasi dira, asteazkenero, Dantzalekun. "Denak batera entrenatzen hasi dira, eta giro oso polita dute. Ziklo-krosa kirol oso gogorra da, eguraldiaren arabera gogorragoa, baina gustura ibiltzen dira".

Halako proba bat antolatzeak badu lana. Ibilbideko larreetako lur jabeei baimena eskatu, ibilbidea piketeekin markatu, gurutzak egin... "Lana du, baina antolatzeko jendea baldin bada, aurrera ateratzen da. Ildo honetan, Urdiaingo herriari eta laguntzaile eta kolaboratzaile guztiei eskertu nahi genieke, eurek gabe ezingo genukeelako proba antolatu" adierazi du Burundako ordezkariak. Urdiaingo sarrera soilik lasterketa irteeretan itxiko dute, lasterketa Beheko Bentatik antolatuko delako. Ondoren, proba gauzatzen den bitartean, herrira igotzeko eta jaisteko karril bat zabalik utziko dute. Urdiainera bertaratzen direnei herria errespetatzeko eta edozein tokitan ez aparkatzeko eskaria egin diete.

Proba jarraitza animatu dituzte sakandarrak

Kadeteek ordu erdiko lasterketa dute aurretik, goizeko 11:00etan aterata, eta junior mailakoek 40 minutuko, 12:00etan aterata. Bukaeran, sari ematea Aitziber elkarte ondoan egingo dute, 13:00ak inguruan. Proba ikusteko tokirik egokiena futbol zelaia da, bertan txirrindulariek salto egin dezaten enborrak daudela eta gertu bizikleta aldatzeko boxa. "Sakanako jendea animatzen diogu larunbatean Urdiainera gerturatzea, ziklo-krosa zuzenean ikusteko kirol oso polita delako" gonbidatu du Mintegik.

Arrietaren 3 garaipenak eta Izagirrearen bestea

ZIKLO-KROSA Gure txirrindulariek emaitza bikainak lortu dituzte azken bi asteetan

Gure txirrindulariak bikain ibili dira aurreko bi asteetan. Azaroaren 30ean Abadiñoko VI. Nazioarteko Ziklo-krosa jokatu zen. Eliteen lasterketa Ziordiko bizilagun Gorka Izagirrek (Astana) irabazi zuen (59:03), Ismael Esteban bigarrenari 25 segundo atera eta gero. Junior mailan Burundako Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi 23. sailkatu zen eta bere taldekide Jon Chamorro 43 postuan. Kadeteetan, gizonetako Quesos Albenizko Mikel Uncilla laugarrena sailkatu zen, Aimar Tadeo launtzarra (Sakana Group-Aralar) 16. sartu zen eta Mikel Regil (Q. Albeniz) 23. postuan. Kadeteen emakumetako Nahia Imaz altsasuarra (Nafarroa Ermitagaña) bigarrenari iritsi zen (27:34).

Abenduaren 1ean, Sakana Group taldeko Igor Arrietak erakustaldi ederra egin zuen Pontevedrako Sari Nagusian eta proban gailentzea lortu zuen (37:57). Kadeteetan Aimar Tadeo bederatzigarrena sailkatu zen (32:54). Tadeo Puente Viesgoko Santa Barbara Sari Nagusian aritu zen abenduaren 6an eta laugarrena sailkatu zen (36:32).

Larunbatean, abenduaren 7an, Ametzagako 34. San Andres Trofeoa jokatu zen. Igor Arrieta gailendu zen (37:43). Iker Mintegi (Q. Albeniz) 39. iritsi zen, Jon Erdozia (Sakana G.) 41., Jon Chamorro (Q. Albeniz) 48. eta Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 57. Kadeteetan Mikel Uncilla bosgarrena sailkatu zen eta Aritz Oiarbide 30. sartu zen. Emakumetako Nahia Imazek 8. postuan bukatu zuen (27:05).

Eta hurrengo egunean, igandean 43. Igorreko Nazioarteko Ziklo-krosean Igor Arrieta nagusitasun handiz gailendu zen junior mailan (41:02). Kadeteetan Mikel Uncilla 5. iritsi zen, Aimar Tadeo 22., Mikel Regil 25. eta Aritz Oiarbide 54.



Igor Arrieta Igorreko Nazioarteko Ziklo-Krosa irabazi zuen igandean. @ERIZFRILE

"Giro ezberdina du ziklo-krosak"

IGOR ARRIETA LIZARRAGA SAKANA GROUP-ARALAR TALDEKO TXIRRINDULARIA

ZIKLO-KROSA Errepidean denboraldi bikaina ondu eta gero, ziklo-krosean ikusgarri dabil Igor Arrieta uharte arakildarra. Bost probatan parte hartu eta bostak irabazi ditu

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Ziklo-krosean errekorrak apurtzen ari da Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarraga; bost garaipen daramatza.

Azkenaldian zutaz hitz egitea garaipenez hitz egitea da. Ziklo-krosean bost probatan aritu zara eta bostak irabazi...

Beno, hori da atera zena. Pozik nago garaipen horiek lortzeagatik. Hemendik aurrera ez daki gu nola jarraituko dugun, baina momentuz egindakoa ongi dago. **Bi modalitate oso ezberdin dira errepidea eta ziklo-krosa. Baina zuek batean bezain ongi moldatzen zara bestean.**

Igual errepidea gustukoago dut, baina ziklo-krosa ezberdina da. Kategoria guztikoek korritzen dugu ziklo-krosean, profesionalekin ibiltzen gara, eta giroa ezberdina da, gertukoagoa. Politikoa da ziklo-krosa.

Teknikoagoa izango da: aldapak, saltoak, bizikleta gainean hartu eta korrika hasi behar izatea...

Zailagoa da. Azkenean buelta batetik bestera zirkuitua aldatzen hasten da, ibilbidetik pasatzerakoan matxurak edo erorketak badaude, zirkuitua aldatzen da, gehiago lokazten da...uneoro joan beharko zara ikusten zirkuitua nola aldatzen den eta zirkuitura ohitzen.

Edi Cerviño duzu entrenatzaile. Aita, Jose Luis Arrieta, txirrindulari ohia eta Movistar Team taldeko zuzendaria da. Biek esandakoa kontuan hartzen duzu?

"PENA EMATEN DIT URDIANEN ARITU EZ IZANAK, BAINA VALENTZIAN KOPAKO LASTERKETA DUT"

Aitari edozein zalantza galdetzen badiot erantzuten dit, berak bizitakoaren berri ematen dit eta aholkuak ematen dizkit. Eta Edi dut entrenatzaile; berak esandakoari kasu egiten diot. Horretaz gain, ni nire kabuz ikasten noa. Beraz, denetatik. **Errepideko denboraldian egindakoarekin gustura geratu zara? Hemengo lasterketetan aritu zara, Espainiako Txapelketetan, Mundialetan ere bai... 17 urte bete berri dituzu abenduan, 16 urterekin hori ez al da ikusgarria? Zuk nola bizi izan duzu?**

Denboraldia oso ona izan da, egia esan. Urte hasieran ez nuen espero denboraldia halakoa izango zenik. Mundialetan aritzea ikusgarria izan da. **Errepidean zenbat garaipen izan dituzu?**

Bada... zazpi edo zortzi izan dira uste dut.

Tartean, Altsasu eta Etxeberriko lasterketak irabazi zenituen eta Gipuzkoako Itzulia.

Garaipen garrantzitsuenetarikoa izan da Gipuzkoako Itzulia. Gero Espainiako Txapelketan Nafarroako selekzioarekin bigarrena izan nintzen, eta Euskadiko Erlojupekoan azkarrena.

Beraz, todoterrenoa zara. Erlojupekoan ongi, esprintetan ere ongi moldatzen zara, mendia ere gustuko duzu, ziklo-krosean ibiltzen zara... Nola definitzen duzu zure burua?

Oraindik ez dakit esan ahal dudan zer izango naizen, nolako txirrindularia izango naizen, baina uste dut ikusten dela nahiko ongi moldatzen naizela eremu ezberdinetan. Mendia gustuko dut, aldapak eta.

Duela gutxi Nafarroako Federazioak antolatutako ziklo-kros campusa egin zenuten Sakanan, Dantzalekun eta San Pedro zelain. Bertan aritu zineten hainbat sakandar, zu tartean.

Ni ez nintzen campus guztian egon, ziklo-krosa nuelako, baina tarte batean egon nintzen. Oso ongi ibili ginen, Larrinagarekin beti ikasten da, bai teknikaz edo bizikletan nola igo eta halakoez.

Abenduaren 1ean Pontevedrako Saria irabazi zenuen, Espainiako Koparako baliagarria, abenduaren 7an Ametzagako Trofeoa, hurrengo egunean abenduaren 8an Igorreko Nazioarteko Ziklokrosa eta aurretik Legazpiko Ziklo-Krosa eta Karrantzako Ziklo-Krosa irabazi zenituen azaroan. Asteburu honetan Valentziara joango zara, Espainiako Kopako azken proban aritza.

Bai, bi proba garrantzitsu jokatuko dira bertan, larunbatean Xativakoa eta igandean Valentziakoa eta bietan hartuko dut parte.

Espainiako Kopako sei probetatik bitan aritu zara eta sailkapenean hirugarrena zara. Valentzian egiten duzunaren arabera zein postu lortu dezakezu?

Gehienez bigarrena, baina bigarrenak huts egiten badu... Beti dago zerbait jokoan. **Ziklo-kroseko denboraldia ilbeltzean bukatzen da. Zein beste lasterketetan ariko zara?**

"AURTEN LORTUTAKOAK HELDU DEN URTEAN PRESORIK SORTUKO DIDANIK EZ DUT USTE"

Nafarroako Ziklo-kros Txapelketan ariko naiz, abenduaren 21ean Iruñean, eta gero Euskadiko Ziklo-kros Txapelketan, abenduaren 29an, Lezaman. Ilbeltzaren 1ean Ormaiztegiko proban parte hartuko dut, Gipuzkoako Txapelketan, eta ilbeltzaren 10etik 12ra Pontevedran jokatuko diren Espainiako Ziklo-kros Txapelketetan. Helburua ahalik eta hobe aritzea da. Irabaztea denoi gustatzen zaigu, baina beti irabaztea ezinezkoa da. Beraz, ikusiko dugu ea nola ateratzen den. Eta ziklo-krosa bukatuta errepidean hasiko gara. Juniorren 2. urtea izango da 2020koa.

Zein aurreikuspenak dituzu 2020rako? 2019an lortutakoak esutzen zaitu?

Printzipioz ez, ez dut uste aurten egindakoak heldu den urtean presiorik sortuko didanik. Ondo pasatzea da helburua, eta lasterketak ondo ateratzen dira. Lehen urtekoek beti begiratzen diete bigarren urtekoek, baina ez dut uste horrek estutuko nauenik.

Errepidea, ziklo-krosa... noiz deskantsatzen duzu?

Errepideko Mundiala bukatu eta gero, bizpahiru aste bizikleta ikutu gabe egon nintzen, eta gero entrenatzen hasi nintzen. Eta ziklo-krosa bukatutakoan beste bizpahiru aste hartuko ditut.

Bizikleta hartu gabe aguantatzen duzu?

(Kar, kar...) Bai...

Zenbat entrenatzen duzu egunero?

Entrenatu? Ba egunaren arabera. Txarra egiten badu gutxiago eta egun hobea ateratzen denean aprobeixatu egiten dut pixka bat gehiago entrenatzeko. Ikasketekin nahiko ondo moldatzen naiz, momentuz ongi uztartzen dut dena.

Larunbatean Urdiaingo Ziklo-Kros lasterketa antolatu dute. Pena emango dizu Sakanako proban ezin aritu izanak...

Bai, azkenean esfortzu handia egiten ari dira lasterketa antolatzeke, eta pena da ezin aritu izana. Baina egutegia oso estua da, eta dena ezin da.

Egiten dizkizueten probetan ematen dituzun datuak ikusgarriak omen dira...

Beno, ez dakit, ondo noala esaten didate.

Oso umila zara...

Beno... (kar, kar).

Zorte on Valentzian!

Eskerrik asko!

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK. 6. JARDUNALDIA

IGANDEAN BETELUN

10:00	Betelu - Altsasu B
10:50	Altsasu C - Altsasu A
11:40	Etxarri-Danbolinbulo - Sutegi
12:30	Lagun Artea 09 - Etxarri-Utzubar Txiki
13:20	Lagun Artea 08 - Etxarri-Hartzabal
	Atsedean: Etxarri-Epele

BENJAMINAK. 3. JARDUNALDIA

IGANDEAN ALTSASUN, DANTZALEKUN

10:00	Altsasu A - Altsasu B
10:00	Sutegi - Urdiain
11:00	Betelu - Altsasu C
11:00	Etxarri Aranatz - Aralar Mendi

Sakanako Futbol Topaketak
Betelun eta Dantzalekun

Mank-ek antolatutako Sakanako Futbol Topaketetan, Igandean kimuen mailako 6. jardunaldia jokatu da Betelun eta benjaminen 3. jardunaldia Dantzalekun.

ELOMENDI TXAPELKETA.

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Modernillo **6-1**

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1	Barasoain	21
3	Zaldua	19

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Zaldua - Elomendi (*Lekunberri*)

Zalduak bigarren postua jokoan

Zalduak sailkapenean bigarrena den Elomendiren kontra jokatu du bihar.

Txapeldunen ordua Iñigo Aritza Txapelketan

PILOTA Igandean Iñigo Aritza Ikastolako Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Altsasuko Burunda pilotalekuan, 17:00etatik aurrera. Aurretik, 16:30ean, benjaminen mailako finalerdi bat erabakiko da

Iñigo Aritza Ikastolako XXII. Pilota Txapelketa azken txanpara heldu da. Urriaren bukaeran hasi zen, 47 neska-mutikok hartu dute parte eta igandean final handiak jokatu dira Altsasuko Burunda pilotalekuan, 17:00etatik aurrera.

Ikastolan pilota sustatzeko lana aspalditik egiten da. Ikasleek pilota eskolak jasotzen dituzte, eta ikasitakoa praktikan jartzeko sortu zen Iñigo Aritza Ikastolako Pilota Txapelketa. 22 urte pasa dira ordutik, aurten 22. edizioa jokatzeko ari baita.

Aurten aldaketa egin da eta ikastola osatzen duten herri guztietan jokatu da txapelketa, Ziordian, Olaztin, Urdiainen eta Altsasun, "herri guztiek osatzen dugulako ikastola" antolatzaileek azaldu dutenez. Guztira 5 jardunaldi jokatu dira eta igandean, esan bezala, txapeldunak erabakiko dira. Guztira 8 final jarriko dira jokoan, baina finalekin hasi baino lehen, benjamin mailako



Joan den urteko finalista batzuk.

LH3 gelako emakumezkoen finalaurrekoa jokatu dute Eider Gastesik eta Izaro Lanza, 16:30ean.

Bukaeran, parte-hartzaile guztiek gozokiak jasoko dituzte opari eta talde argazkia aterako da.

Finalak

Iñigo Aritza Pilota Txapelketako finalak igandean, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

Umeak, benjaminak

LH3:

- Jurgi Reparaz - Izei Orabengoa
- Naia Olaiz - Eider Gastesi edo Izaro Lanza

LH4:

- Egoi Urtasun - Ekaitz Zufiaurre
- Anitz Anda - Alaine Mendiari

Kimuak

LH6:

- Asier Zubiria - Urko Lanza

Haurrak

DBH1:

- Aimar Igoa - Oier Carabias
- Siets Goikoetxea - Iraide Vergara
- Iraide Vergara - Amets Izquierdo

DBH2:

- Oier Mitxelena - Asier Astiz

FUTBOL PREFERENTEA

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

San Jorge - Lagun Artea	2-3
Etxarri Aranatz - Aibares	0-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Beti Casedano	20
5	Lakuntzako Lagun Artea	18
14	Etxarri Aranatz	11

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Ardoi - Etxarri (*El Pinar*)

IGANDEAN

15:45 Lagun A. - Mutilbera (*Zelai Berri*)

Puntu bat Etxarrik, hiru Lagun Arteak

San Jorge eta Lagun Arteak jokatuak partida nahasia izan zen. San Jorge aurreratu zen eta arbitroak Laguneko Xabi kaleratu zuen; baina Unai Bakaikoak sartutako 2 golekin eta Unai Zubiriak lortutakoarekin irabazi egin zuten lakuntzarrek. Etxarri Aranatzek ere jokalaritza gutxiagorekin aritu behar izan zuen Aibaresen kontra, baina ongi eutsi eta gol aukera ederrak sortu zituen, tamalez kontrako atean sartu ez zirenak.

FUTBOL ERREGIONALA

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Beti Kozkor - Altsasu	2-1
-----------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	28
10	Altsasu	10

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Zizur - Altsasu (*El Pinar*)

Altsasuren garaipen mingarria

Lekunberri Beti Kozkorrek eta Altsasuk jokatuak partida oso lehiatua izan zen. 26. minuturako bi gol sartu zituzten Beti Kozkorrekoek. Altsasuk borrokan jarraitu zuen eta Patxiren golak airea eman zion, baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

EMAKUMEEN ERREG.

13-14 JARDUNALDIETAKO EMAITZAK

Altsasu - Amigo	2-0
Burlades - Altsasu	2-3

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Castejon	37
6	Altsasu	24

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:30 Altsasu - Mutilbera (*Dantzaleku*)

Altsasuko neskek seigarrenak dira

Azken bi partidak irabazi eta gero, sailkapenean igo dira altsasuarrek.



UTZITAKOIA

CBASK-en janari bilketa

SASKIBALOA Autonomien Arteko 2. mailan, gaur, ostirala, 20:00etan, CBASK-Jatorman taldea Valle de Egues taldearen kontra ariko da Zelandi kirolegian. Partida Paris 365 jantoki sozialaren aldeko janari bilketa solidarioa egiteko aprobetxatuko du Altsasuko taldeak. Lekaleak, pasta, arroza, kontserbak, olioak eta beste eramateko deia egin du CBASK-ek.

Osasuna Magnak aurrera egin du Errege Kopan


ARETO FUTBOLA Kopako final zortzirenetarako sailkatu dira berdeak. Gaur Jaen taldea hartuko dute Anaitasunan

Asteazkenean Errege Kopako final hamaseirenetako partida jokatu zuen Osasuna Magna Xotak Zaragozan, 2. mailan dabilen Colo Colo taldearen kontra. Partida oso gogorrean eta ederki kostata, azkenean talde nafarrak lortu zuen final zortzirenetarako sailkatzea, 3 eta 4 irabazita.

Ligari dagokionez, talde berdeak garaipena lortzeko aukera galdu zuen aurreko asteburuan Ferrolen, O Parrulo taldearen kontra bina berdindu eta gero. Roberto Martilek Osasuna Magna aurreratu zuen, baina gali-

ziarrek bi gol sartu zituzten eta azkenean bina berdintzea lortu zuten berdeek, gol aukera ugari alferrrik galdu zituzten. "Bi deskuidotan bi gol sartu dizkigute eta aukera oso argiak huts egin ditugu. Lanean jarraitu beharra dago" ondorioztatu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Ligako sailkapenean Barça da lider (31) eta Osasuna Magna 7. da (19 puntu). Gaur, ostirala, Anaitasunan, sailkapenean 6. eta arerio zuzena den Jaen hartuko dute berdeek; jokoan dauden puntuak ezinbestekoak dira.



Iaz 114 partaide izan ziren Etxarrin.

TXAKURKROSA Etxarriko Txakurkrosean izena emate zabalik

Abenduaren 22an jokatu da III. Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Proba Euskadiko Txakurkros Ligarako puntuagarria da, eta hiru modalitatetan jokatu da: bikejoringa, patina eta txakurkrosa. Proban izena ematea zabalik dago, abenduaren 19ko 23:59ak arte, www.rockthesport.com web gunean (16 euro proba batean izena ematea, 20 euro bi probatan aritzen direnendako).



Annapurnako kanpamentuan. TXELIS

Txelis Rubioren Annapurna

MENDIA Txelis Rubio Mendiluze altsasuarra apirillean Annapurnan egon zen, kanpamentu nagusian trekking ibilbideak egiten.

"Madrildarrak, euskaldunak, kataluniarrak, Granadakoak... Guztira 12 pertsona, gustura" azaldu digu. Bihar, larunbata, 20:00etan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzan argazki proiektzioa egingo du.

Rania Mabchourren zilarrezko domina

TAEKWONDOA Kluben Arteko Espainiako Taekwondo Txapelketan zilarrezko domina lortu zuen Bargagain talde sakandarreko 11 urteko Rania Mabchourrek, aurre-kadete mailan. Bargagaino gainontzeko sakandarrek ere maila polita eman zuten

Abenduaren 6tik 8ra Kluben Arteko Espainiako Taekwondo Txapelketa jokatu zen Alacanten. Bertan, Bargagain Taekwondo Taldeak 5 taekwondolarirekin hartu zuten parte: Rania Mabchour eta Leire Etxaniz, haurren mailan; Erkuden Moreno, kadete mailan (aurretik Espainiako bi domina ditu), eta Ane Gil eta Irati Irigoien (Iratik aurretik Espainiako bi domina ditu), junior mailan. Junior mailan aritzeaz gain, Irati Irigoienek ere 21 urtez azpiko mailako txapelketan aritu zen.

Bargagain Taekwondo taldeko entrenatzaile Gerardo Montero Riverak adierazi digunez, Rania Mabchourrendako eta Leire Etxanizendako esperientzia berria izan zen Espainiako Txapelketan aritzea. "Txikienen helburua Nafarroatik atera eta kanpoan zein maila dagoen ikustea zen, horrenbeste jende lehiatzen den txapelketan aritzea, estatuko onenen artean. Lan bikaina egin dute eta Raniak sorpresa eman du, 11 urterekin zilarrezko domina lortu baitzuen aurre-kadete mailan. Espainiako txapeldu nordea dugu, beraz" azaldu du Bargagaino irakasleak.

Gerardo Monterok aipatu digunez, Nafarroan 1.500 kirolari inguru trebatzen dira taekwon-



Alacanten lehiatu zen boskotea, Gerardo Montero entrenatzailearekin. BARGAGAIN

doan. "Pisu jakinetan taekwondolari asko egoten dira, baina kategoria solteagoetan ez hainbeste. Horregatik da hain garrantzitsua Nafarroatik atera eta beste txapelketetan parte hartzea, hemendik kanpo dagoen maila ikusteko. Prentsa, Kluben

"RANIAK SORPRESA EMAN ZUEN, ESPAINIAKO TXAPELDUNORDEA IZAN DELAKO"

Arteko Espainiako Taekwondo Txapelketan 2.500 kirolaririk gora hartu zutela parte, estatuko onenak, asko Espainiako selekzio kideak, olinpiar domina duen Eva Calvo artean. Eta Bargagain klubeko gure taekwondolariendako oso garrantzitsua da halako mailako probatan aritzea" gaineratu du Gerardo Monterok.

Irigoienek, Gilek eta Morenok zorte apur bat izan zuten faltan Kategoria nagusietan, Erkuden Moreno kadete mailan aritu zen

eta Ane Gil eta Irati Irigoien junior mailan. Irati, horretaz gain, 21 urtez azpikoan ere ibili zen. "Beraiek aurretik Espainiako Txapelketetan dominak lortu izan dituzte eta txapelketan goian egoteko maila dute. Baina lehiaketa hauetan finalera iristeko 5 konbate inguru gainditu behar izaten dira parte-hartzea handia delako, goi mailako arerioak dira eta xehetasunek erabaki dezakete nork egiten duen aurrera. Burua nola duzun eta egoera animikoak eragina du, baita zorte apur bat alde izateak ere. Eta guztia horren azkarra da... Beraiek aurreikuspen eta itxaropen handiak zituzten, baina azkenean ez dute dominarik lortu. Triste geratu ziren hasieran, baina guztia behar bezala baloratzerakoan lasaitu ziren. Lehiaketa asko dituzte aurretik, aukera gehiago, eta lanean jarraitzea, ez dago besterik" azaldu du Monterok.

Bargagain Taekwondo taldean entrenatzen eta trebatzen jarraituko dute bien bitartean gure taekwondolariak. Klubak 100 ikasle inguru ditu Altsasun eta Uharte Arakil eta Olaztiko taldeetakoak gehitu behar zaizkio. Baina ikasle hauen artean 20 inguru dira lehiaketetan aritzen direnak. Nafar Kirol Jolasetako Txapelketan jarraituko dute -otsailaren 8an Altsasuk jardunaldi bat hartuko du- eta horretaz gain, hiruzpalau hilabete barru inguruko txapelketaren batean parte-hartzea aurreikusen du Monterok, Zaragoza aldean edo. Bestalde, selekzioen arteko Espainiako Txapelketak jokatu dira eta bertan aritzea aurreikusen du Irigoienek; ekainean Bulgarian jokatu den Multi European Games-etan parte hartzea ere beste aukera bat izan daiteke.

Monteropiaren onurak azalduko ditu Garbizuk bihar Lakuntzan

MENDIA Mank-ek antolatuta, bihar, 10:00etan, Lakuntzako Kultur Etxean izanen da hitzaldia

Juanjo Garbizu mendizaleak 2012an "Monterapia. Cuesta arriba se piensa mejor" liburua idatzi zuen, sekulako arrakasta izan duena. Mendia ulertu eta bizitzeko duen moduz hitz egiten du bertan. Besteak beste, arima

sendatzeko mendia guztiz toki aproposa dela dio mendizaleak. Berak uste du mendian gora eta behera hobeto hausnartzen dela, eta mendizaletasunaren terapia natural hori sustatu nahi du. "Off" botoia sakatu eta mendira

abiatu". Mendia ulertzeko filosofia horretaz, betiko mendizaleekin estuki lotua dagoenaz, ariko da larunbatean Lakuntzako Kultur Etxean, goizeko 10:00etatik aurrera. 2016an *Slow Mountain* liburua idatzi zuen Garbizuk, hain zuzen ere mendira lasai joatea sustatzen duena, eta aurrean Aralarko Mendizerra eta Parke Naturalari buruzko gida.

Hitzaldiaren ondoren te beroa hartuko dute bildutakoek, eta eguraldiak laguntzen badu paseoa egingo dute menditik.



Garbizu mendizalea. UTZITAKOIA



Hotza ari zuen, baina korrikalariek gustura osatu zuten ibilbidea. MIREN ARREGI

Etxeberria eta Beunza azkarrenak Altsasun

ATLETISMOA Igandean Zubeztia elkarteak antolatutako 39. Oinezko lasterketa edo 36. Alberto Barricarte Memorialean gailendu ziren, 166 korrikalarien artean, Antonio Etxeberria eta Izaskun Beunza. Antolakuntzak lasterketaren sortzailek omendu zituen

Abenduaren 8an, Ama Birjinaren egunean jokatzeko Zubeztia elkarteak urtero antolatzen duen lasterketa. Gertu diren sansilvestreak prestatzeko lasterketa polita da, proba herrikoi eta polita. 166 korrikalariek hartu zuten irteera, goiz hotzean, eta antolakuntzak herrian prestatutako zirkuituari 4 itzuli eman zituztuen, guztira 10 km inguru.

Antonio Etxeberria ez zuen areriorik izan Altsasuko proban (31:52). Jon Sola izan zen bigarrena (32:47) eta Angel Vazquez hirugarrena (32:50). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra seigarrena sartu zen (33:46). Etxeberria lau aldiz irabazi du Altsasuko proba beterano hau, baina igandean bereziki pozik zegoen, helmugara aspaldi honetan izan dituen sentsazio hoberekin iritsi zelako. "Nire erritmoa hartu dut berehala eta itzuli bakotzeko azkarrago ibili naiz, gogotsu. Duela bi urte ez nintzela horren ongi aritzen; garaipen handia izan da niretzat" adiera-

zi zuen. Emakumezkoetan, Izaskun Beunza Azazetak ez zuen aparteko arazorik izan garaipena lortzeko (37:42). Olaztiarra Pilar Morani (38:46) eta Begoña Armentiarri (42:40) gailendu zitzaizkien. "Erritmo polita hartu dut eta lau itzulietan erritmoari eustea lortu dut. Oso ongi entrenatzen ari naiz eta nabaritzen da" aitortu zuen olaztiarrak

Sortzaileei aitortza

Antolakuntzak proba honen sortzaileak omendu nahi izan zituen. Candi Arnanzi, Victorino Lopez de Goikoetxeari eta Gregorio Riezuri aitortza egin zieten, "lasterketa honi urte luze hauetan babesa eta dedikazio guztia" eskaini izanagatik. Plaka bana jaso zuten laurek. Oraindik esku bat emateko pronto egoten dira, bai-



Lasterketa hasi baino lehen Riezu, Arnanz eta Lopez omendu zituzten. MIREN ARREGI

Sakandarrak

Gizonak

1. Antonio Etxeberria	31:52
6. Sergio G. Eulate (Alts)	33:46
7. Raul Audikana (Olaz)	33:48
15. Javi Moreno (Alts)	35:03
25. Ivan Sobredo (Alts)	35:48
28. Eukeni Goikoetxea (Alts)	36:05
33. Felix Benjumea (Alts)	36:19
35. Aritz Munarriz (Etx)	37:09
39. Aritz Etxeberria (Alts)	37:23
43. Jabi Gasanz (Alts)	37:33
52. Iker Flores (Alts)	38:28
63. Juan Luis Maiza (Etx)	39:11
68. Axier Larrion (Alts)	39:33
69. Iñaki Alvaro (Alts)	39:35
77. Joseba Galartza (Iturm)	40:38
83. Joxeja Maiza (Etx)	41:48
84. Aitor Hernaiz (Lak)	42:01
90. Santi Agirre (Iturm)	42:37
94. Peio Vergara (Alts)	42:53
100. Alberto Mazkieran (Alts)	44:00
109. Alberto Aguirre (Alts)	45:49
113. Juanxo Azurmendi (Alts)	46:08
125. Jose Ramon Ramirez (Alts)	49:15
128. Jesus Bengoetxea (Alts)	49:40
129. Iñigo Orella (Etx)	49:59
134. Ruben Nevado (Alts)	50:59
141. Josean Salgado (Alts)	51:37

Emakumeak

45. Izaskun Beunza (Olaz)	37:42
98. Erkuden San Martin (Etx)	43:08

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Abenduaren 6an Altsasu Kirol Elkarteak edo Sociedad Deportiva Altsasuak 2019/2020 denboraldiko aurkezpena egin zuen. Guztia lotzen Alfonso Castellanos futbol koordinatzailea egon zen. Aurten 15 futbol talde ditu Altsasuk, iaz baino talde bat gehiago, eta 280 futbolari inguru trebatzen dira Dantzalekun, 25 entrenatzaileekin. Man k-ekantolatutako Sakanako Futbol Topaketetan, Altsasuk benjaminen 3 talde ditu eta kimuen beste 3 talde; Nafar Kirol Jolasetan, hurren mailako 2 futbol talde, kadeteen beste 2 talde eta Emakumezkoen Futbol 8 taldea ditu; eta Nafarroako Futbol Federazioan, jubenilen 2 talde ditu, eta erregionalean beste bi talde, gizonetzkoena eta emakumezkoena. "Futbolak osasun bikaina du Altsasun; mugimendu handia dago Dantzalekun, eta hori da jarraitu beharreko bidea, gehiago hazten saiatzea" aipatu zuen Castellanosek.

Castellanos eta Mendinuetak hartu dute gizonetzkoen erregionaleko ardura

Futbol koordinatzailea izateaz gain, aurten gizonetzkoen erregionaleko taldearen entrenatzailea da Alfonso Castellanos, Endika Mendinuetaren laguntzarekin. "Joan zen urtean emakumezkoen erregionaleko entrenatzailean nintzen, eta aurten gizonetzkoen ardura hartu dut. Gizonetan aldatetaren beharra ikusi zen; Iruñeko entrenatzailearen bat ekartzen saiatu ginen, baina, azkenean, Endikaren laguntzarekin saltoa ematera animatu naiz. Gustura nago, eta badirudi taldea ere kontentu dagoela. Giro bikaina dago, mutilek elkar eza gutzen dute, harremana dute eta gustura gabilta" gaineratu du Castellanosen.

Taldea egitea eta egonkortzea

Gizonetzkoen erregional 6 baja izan dituzte: Mikel Cordero, Jokin Lobo, Joseba Montoya, Cristian Leon, Asier Amiama eta Ekai Urkijo. Altak, jubeniletatik igo diren Mikel Arellano, Eneko Vera, Tasio Merchan eta Aitor Flores dira. Horretaz gain, Unai Alaba eta Julen Goikoetxea taldera itzuli dira eta 2 jokalarri berri daude, Lucas Fernandez atezain urdiaindarra eta Juan Bautista jokalarri iturmendiarra. "Gurea talde oso gaztea da. Hortaz, orain taldea egitea da gure helburu nagusia,



Gizonezkoen erregional mailako Altsasu taldea.



Emakumezkoen erregional mailako Altsasu taldea.

Altsasuko futbola bide onean

FUTBOLA Altsasuko Kirol Elkarteak 2019/2020 denboraldiko taldeen aurkezpena egin du. 15 talde, 280 jokalaria eta 25 entrenatzaile guztira. Erregional mailako gizonen taldea egonkortzea da helburua eta emakumezkoen gorakadari eustea

taldea sendotzea, egonkortzea eta harrobia ere sendotzea. Ez dugu mailaz igotzeko presioa gainean izan nahi. Taldea egitea eta ahalik eta hobekien aritzea eta jokatzeko, hori da asmoa. Momentuz hamargarrenak gara, baina sailkapena oso estua dago, edozer gerta daiteke. Taldea bide onean dago; akaso horren gazte izatearen esperientzia falta du taldeak, baina zorte gehiagorekin eta bidea eginez iritsiko dira emaitzak" azaldu digu Castellanos. Gaur egun, erregional mailako 2. multzoan dago Altsasu, eta talde indartsuenak Amaya eta Universidad de Navarra direla uste du Castellanos, gainontzekoak maila paretsuan daudela. "Xehetasunengatik erabakitzen diren partidak dira gainontzeko taldeenak, oso paretsuak" gaineratu du entrenatzaileak.

Emakumezkoen erregionaleko taldearen gorakada

Altsasuko Kirol Elkarteak emakumezkoen 2 talde daude, Emakumezkoen Futbol 8 taldea, Nafar Kirol Jolasetan aritzen dena, eta Emakumezkoen Erregionala, Nafarroako Futbol Federazioan lehiatzen dena. "Bi taldeak sendotu nahi ditugu. Erregional mailako taldearen 4. denboraldia da aurtengoa, eta Futbol 8 taldeko 5. denboraldia. Futbol 8-ko taldean 16 neska daude eta erre-

gionalekoan 23. Futbol 8 taldea egonkortzen doa eta hobekuntza nabaritzen da" aipatu du Castellanos.

Sekulako igoera egin dutenak erregional mailako neskek izan dira. "17 taldek osatzen dute Emakumezkoen Erregional maila; aurreko denboraldian 16. postuan sailkatu ziren, eta aurten seigarrenak dira. Iaz 26 puntu lortu zituzten denboraldi osoan eta egun 24 puntu dituzte, lehendabiziko itzulia despiditu baino

lehen. Zer gertatu zaien? Nire ustez, bere buruan sinisten hasi direla. Lehen talde berria izatearen zera hori zuten, taldea egitea falta zitzaie, eta aurten konfiantza hartu dute. Ikusgarri daude, aizkorakada galanta eman dute" azpimarratu du Castellanos. Irati Igoa Mulierko futbol jokalaria emakumezkoen Futbol 8 taldea entrenatzen du eta erregional mailako taldean Endika Mendinueta entrenatzailearen laguntzailea da. "Oso ongi ari dira, eta Irati emakumezkoen bi taldeen arteko lotura bikaina da" gaineratu du Castellanos.

Junta berbera

Altsasuko Kirol Elkarteko juntan ez dago aldaketarik. Jone Fresneda da presidentea, Carlos Villoalbos presidenteordea, Maria Eugenia Rosa diruzaina, Mañu Navarro idazkaria, eta Jesus Sayas, Martin Somocurcio, Felix Mazkieran eta Iñaki Etxaiz bokalax. Txirrindularitza sekzioaren ardura Felix Mazkieranek du, pilotarena Mañu Navarrok eta Jesus Sayasek eta futbolarena Alfonso Castellanos.



Altsasu

2019/2020 Altsasu Gizonezkoen Erregionala

- **Atezainak:** Lucas Fernandez eta Ailetz Nuñez jubenila.
- **Atzelariak:** Unai Alaba, Aitor Lopez, Juan Bautista, Esteban Letona, Paulette Vergara, Eneko Garasa, Gorka Martinez eta Aitor Lara.
- **Erdilariak:** Mikel Arellano, Jon Mendia, Javi Guisado, Patxi Letona eta Jon Insausti.
- **Aurrelariak:** Julen Goikoetxea, Eneko Vera, Imanol Lobo, Raul Claver, Jon Lanz, Tasio Merchan, Imanol Reparaz eta Aitor Flores.
- **Entrenatzailea:** Alfonso Castellanos.
- **2. entrenatzailea:** Endika Mendinueta.

2019/2020 Altsasu Emakumezkoen Erregionala

- **Atezainak:** Izaskun Ruiz de Egin eta Janire Lopez.
- **Atzelariak:** Amaia Viana, Maalen Beraza, Ainhoa Agirre, Saioa Sayas, Maialen Ijuria eta Janire Lopez.
- **Erdilariak:** Alicia Elizalde, Sandra Gasco, Sonia Alonso, June Alzelai, Beatriz Teixeira, Garazi Martinez de Marigorta eta June Leza.
- **Aurrelariak:** Eider Vicente, Nerea Arellano, Amets Oteiza, Ekiñe Razkin, Aintzira Arretxe, June Garcia de Albeniz, Maddi Mariñelarena eta Jone Grados.
- **Entrenatzailea:** Endika Mendinueta.
- **2. entrenatzailea:** Irati Igoa.

"MUGIMENDU HANDIA DAGO DANTZALEKUN, ETA GEHIAGO HAZTEN SAIAITZEA, HORI DA BIDEA"

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 13

ALTSASU Emozioen kudeaketa
tailerra.
17:30ean, Intxostiapunta gazte
txokoa.

LAKUNTZA Oihane Anduezaren
Darse cuento ipuinaren
aurkezpena. Ondoren, Santa Luzia
jostunen txokolatada Gure Nahian.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Txano y Oscar. Los
vecinos subterráneos liburuen
aurkezpena Patricia Perez eta
Julio Santos egileekin. Arkatx
liburudendak, Haritza tabernak eta
Altsasuko liburutegiak antolatuta.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Si yo fuera rico filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

ZIORDIA Gaztetxearen 25.
urteurrena Santa Luzia egunean.
Kontzertuak: Igitaia eta Soinuz blai.
23:30ean, gaztetxean.

ZORION AGURRAK



Iraia Galarza Zubiria
Zorionak "preziosa"
zure 2.urtebetetzean! Familia
guztiaren partez ondo pasa!!

LARUNBATA 14

LAKUNTZA Mendi-terapia
Juanjo Garbizu mendizalearen
liburuaren aurkezpena.
10:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Goza dezazun zure sexu
osasunaz ahaztu gabe: hies-sti.
HIESaren aurkako Nafarroako
Batzorde Hiritarraren hitzaldia.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Annapurnako campo
baseko trekking-aren Txelis Rubio
Mendiluzeren argazkien proiektzioa.
20:00etan, mendigoizaleen egoitzan.

IRURTZUN Euskal ekitaldiak:
Berto afaria Uxue Alberdi eta
Julio Soto bertolariekin.
21:30ean, Iratxo elkarte.

IGANDEA 15

ALTSASU Sajazarrara 48 km-ko
ibilbidea egingen du Barranka
mendi taldeak.
07:30ean, taldearen egoitzan.

ALTSASU Auza mendira.
Altsasuko Mendigoizaleen irteera.
08:00etan, egoitzan.

UHARTE ARAKIL Pagadi, karst
eta Aralarko begiratokiak.
10:00etan, Aralarko santutegitik.

LAKUNTZA Ikusi Makusi
haurrendako.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Angry birds 2 filma.
17:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Ikusi Makusi
helduendako.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Si yo fuera rico filma.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Pájaros de verano
zineforum filmaren emanaldia.
19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta
Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal presoak eta
iheslariak etxera! Gabonetako
egutegia. Propaganda tailerrak.
18:00etan, Kukurreka elkarte.

ASTEARTEA 17

ETXARRI ARANATZ Etxarri
Aranazko leku-izenak herrigune
historikotik kanpo.
19:00etan, kultur etxean. Ikus 7. orrian.

ALTSASU Euskal presoak eta
iheslariak etxera! Gabonetako
egutegia. Propaganda tailerrak.
18:00etan, Kukurreka elkarte.

ALTSASU Relacionarnos con la
tristeza y ser felices. Hizlaria:
Juan Pedro Arbizu, psikologo
klinikoa.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 18

ALTSASU Literatur solasaldia:
Jose Luis Asensio idazlearen
Ixa Asap! liburua.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak eta
iheslariak etxera! Gabonetako
egutegia. Propaganda tailerrak.
18:00etan, Kukurreka elkarte.

ALTSASU Musika eta dantza
eskolaren ikasleen kontzertua.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 19

ALTSASU Madre filma.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La quietud zineforum-a.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Musika eta dantza
eskolaren ikasleen emanaldiak.
20:00etan, herriko kaleetatik.

Guaixeren 25. urterrenaren
Batzen gaituena kit-a salgai

POLTSOA + TXAPAK + BOLIGRAFOA
Bazkideendako 4€ /Gainontzekoendako 6€



Altsasun
Arkatx liburu dendan
Liburunda liburu dendan
AEK-ko euskaltegian
Etxarri Aranatzen
Kaxeta liburu dendan
Beleixe Irratian
(09:00etatik 12:00etara)
Arbizun
Arbizuko Eko kanpinean
Irurtzunen
Pikuxarren
Martxueta liburu dendan

ALTSASU Itsaspeko bihotzak.
Haur literaturaren bidez
hezki-dantza lantzeko saioak.
Abenduaren 19a,
lortia kultur gune
erakusketa gelan.

ALTSASU Karmelo C.
Iribarren idazlearen eta Ikor
Kotx argazkilararen Aire
freskoa erakusketa.
Abenduaren 20a, lortia kultur
gune
erakusketa gelan.

DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Juan Maria Imaz Gerriko**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Sakana S.Koop-eko zure lankideak
Lakuntzan, 2019ko Abenduaren 7an

ESKELA

**Miguel Jose Armendariz Huarte**

"Besarkada bat familiarendako"

Irañetako Txapel Azpi elkarte

OROIGARRIA

**Paula Mendia Barandiaran**

II. urteurrena

"Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzetan"

Etxekoak

OROIGARRIA

**Jose M^a Artola**

Aitona



Soilik ahazten dena dago hilda.

Etxekoak

OROIGARRIA

**Oihan Garmendia Arruabarrena
Ander Azpiazu Etxarri**

Beti gu artien

1980ko kintuek

OROIGARRIA

**Eusebio Lazkoz Razkin**

VIII. urteurrena

Gure ondotik joan zinen, baina ez gure bihotzetatik. Beti jarraituko duzu gurekin. Maite zaitugu

Emaztea, semeak, alaba eta bilobak

IRAGARKI SAILKATUAK

NEGOZIOAK**ERRENTAN HARTU****Aizarozko ostatua hartzeko:** Basaburuako Udalak Aizarozko ostatua errentan emateko deialdia egin du. Interesa dutenek 948 50 30 35 telefonora hots egin dezakete.**LAN ESKAINTZA****Etxarriko taberna batean, asteburutan lan egiteko pertsona behar da.** Esperientzia eta lan egiteko gogoekin. Deitu 666 224 704 tfnora.**GALDUTAKOAK****Txamarra Etxarri Aranatz:** Gizonezko Geographical Norway(S) txamarra gris-beltza da eta kremailera gorri-laranjarekin, balkoitik erori zitzaidan Etxarri Aranazko kale nagusian. Ikusi ba-

duzu deitu 626 216 612 tfnora. Mila esker

OHARRAK**Sei elkarterako boluntarioak:** Sei elkarreak bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.**Etxarriko irakurle taldea:** urtarilaren 10ean, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburategian elkartzeko dira eta Ferbu Izquierdoren "Men-

deko borroka" liburuaz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

Odol-emateak Altsasun: Abenduaren 17, 18 eta 19ean 17:00 tatik 20:30 tara, 20ean 9:30tatik 13:00tara.**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korranteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitopenerako zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Hidaya Farad Chekkar**, azaroaren 27an Altsasun
- **Nahiane Calvo Beraza**, azaroaren 28an Irurtzunen
- **Aratz Blazquez Etxeberria**, azaroaren 30ean Altsasun
- **Goretti Pires Arangoa**, abenduaren 4an Irurtzunen
- **Araitz Uncilla Aiertza**, abenduaren 5ean Etxarri Aranatz
- **Aratz Navarro Visiers**, abenduaren 6an Altsasun

HERIOTZAK

- **Juan Mari Imaz Gerriko**, abenduaren 5ean Unanun
- **Vicente Aragon Garziandia**, abenduaren 6an Uharte Arakilen
- **Bixenta Razkin Iriarte**, abenduaren 6an Arbuzun
- **Justo Rendo Rato**, abenduaren 7an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IZARRA**HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÁ, A TU LADO«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Kulturgileei "esker ona" adierazteko sariak

NIE saria jasoko du Helena Taberna altsasuarrak. Nafarroako Ikastolen Elkarteak zinemagilearen "euskal kulturarekiko eta feminismoarekiko" konpromisoa balioan jarri nahi du sari honekin. 2015ean hasi zen NIE saria ematen

ALTSASU

Helena Taberna zinemagile altsasuarrak jasoko du aurtengo NIE Saria. Nafarroako Ikastolen Elkarteak ematen du saria "euskal gizartearen eta kulturaren alde, euskararen alde eta ikastolen alde" lan egiten duten pertsonen. Josu Reparaz NIEko lehendakariak azaldu duenez, Taberna "bere printzipioekiko leiala izan den emakumea izan da", eta horregatik jasoko du abenduaren 19an, ostegunean, NIE saria. Ekitaldi "xumea" Nafarroako Ikastolen Elkarteak egoitza izanen da, Iruñeko San Nikolas kalean, 19:00etan.

2015ean banatu zuten lehenengo NIE saria. "Beti pentsatu izan dugu esker ona garrantzitsua dela". Hortaz, euskararen alde, ikastolen alde eta euskal gizartearen alde kulturaren alde lan egiten duten pertsonak "balioan jartzea" garrantzitsua zela ikusi zuten Nafarroako Ikastolen Elkarteak. "Egindako ekarpena saritu eta eskertu" behar zela esan du Reparazek.

Euskal kulturaren arloan lan egiten duten pertsonak saritzen dituzte, beraz, NIE sarian. Hortaz, lehenengo saria Jose Mari Sartrategi sakandarrari, Karlos Garaikoetxeari, Jorge Cortes Izalzi eta Jesus Atxari eman zio-



Helena Taberna, ezkerrean, Zinemaldia. VARADOSPELICULA

ten beraien lana eta ikastolen sorreran egindako ahalegin bereziagatik. Ondoren, Aingeru Epaltza idazlea saritu zuten, Mirentxu Purroy zinemagilea eta kazetaria eta aurreko urtean Jose Antonio Sistiaga artista saritu zuten.

Helena Taberna zinemagilea da aurtengo saritua. Bere printzipioekiko leiala izan delako ematen diote saria, hau da: "Bere jaioterria ez du inoiz ahaztu. Sakanak eta euskal kulturak tokia du bere zinean; kontzientzia euskalduna presente izan du,

konpromiso feminista argia du eta bere identitate publikoari iristeko gaitasuna du". Gainera, bere lana "modu leunean, gizatasunez betetakoa eta koherentzia" egiten duela azaldu du Reparazek. Erdigunean emakumeak jarri dituela eta matxismoaren kontrako hainbat planteamendu landu dituela goraitu du NIEko presidentek: "ikastolak bat egiten dugu". Taberna "beti euskalzale" agertu da, eta seme-alabak ikastolan ikastikoak dira. "Gure printzipioekin bat egiten du.

Gabon kanta, eguberri garaiari hasiera emateko

Erkudengo Ama Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskiniko du bihar, larunbata, 20:30ean, Altsasuko elizan

ALTSASU

Urtero bezala Altsasuko Abesbatzak Eguberriari ongi etorria ematen dio kontzertu moduan. Gainera, abesbatza ez da bakarrik ariko, izan ere, abeslari eta musikari asko izango ditu ondoan

Gabon kanta abesteko. Gabonetako kontzertua bihar, abenduaren 14a, larunbata, 20:00ean izanen da, Altsasuko Jasokunde elizan.

Gabon erreperitorioa anitza sortu du Erkudengo Ama abes-

batzak biharko kontzerturako. Gaztelaniz eta euskaraz gabon kanta tradizionalak interpretatuko dituzte eta bereizgarria ondoan izango dituzten goi mailako bakarlari, abeslari eta musikariak dira: Erkuden Ezeolaza mezo-sopranoa, Itziar Maiz sopranoa, Leire Ayestaran akordeoilaria, Ainhoa Beramendi piano-jolea, Korazonistas eta Musika eta Dantza eskolako abesbatzak eta abesbatzako Isabel Blazquez, Nuria Espada eta Carolina Balzquez bakarlariak.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Durangoko Azoka bukatu... DA?

Aurtengo *Durangoko Azoka* iragan da, ohi bezala, arrakasta handiz. Egun guztietan milaka lagunek bete dituzte hango gunek guztiak, Landakokoa bereziki, non ez baitzen ezta orratzik ere sartzen.

Han erosleak, kuxkuxeroak, liburu eta disko saltzaileak, sortzaileak eta itzultzaileak, denak bertan bildu dira, argitaletxe indartsuak eta apalak, irakurleak, artistak, komikilariak, euskal *star system*-eko idazle eta musikari ezagunenak eta autoediziora jo behar izan duten idazle ezezagunak ere bai. Denek izan dute beren lekua, denek partekatuta ahal izan dute beren denbora; izan ere, hori da azokak duen altxorrik preziatuena, denbora elkarrena egitea, egilearen eta publikoaren arteko kontaktu zuzena. Irakurlea egilearekin bat da, bitartekaririk gabe, naturaltasun osoz. Noizbait eszkenatokitik ehun metrora entzun zenuen zure gogoko kantariaren besarkada jasan dezakezu.

Landakotik landa, jendetza ere badago egun osoan, kultur guneetan, kaleetan bertan, baina eguneko jarduna

bukatzen delarik, zenbait lekuk xarma berezia hartzen dute. Tenore horretan, eta hotzari aurre eginez, jendeak segitzen du literaturaz, musikaz eta artez hitz egiten tabernetako ateen ondoan (Palentinenetan, adibidez), barruan ez baitago gehiagorentzat lekurik. Ardo kopa bat eskuan, azken argitalpenak aipatzen dira, zein izan den eguneko libururik salduena, nor ikusi duzun gaur, nor ez den aurtentorri. HuUrrupaldia bukatu ondoren, afaltzera, eta gero lo egitera, bihar berriro goizgoizetik mahaian egon behar delako azokari bizitza emateko.

Durangoko Azoka txiki bat egin dezagun urte osoan zehar gure herrietako liburu denda eta liburutegietan, aurrez aurreko harremana zainduz, zeren eta *e-book* bat Internetetik jaitea edota haren bitartez euskal kulturaren azken liburua erostea zilegi baita, baina benetan gure kultura sustatu nahi badugu, hobe da liburu saltzaileei zuzenean erostea eta haien aholkuak kontuan hartzea, liburu dendaren usaina aditzen dugun bitartean.

Uxue Alberdi eta Julio Soto bertsolariak Irurtzunen

Bihar, abenduaren 14a, larunbata, 21:30ean, Irurtzungo Iratxo elkartearen bertso afaria egingen dute Uxue Alberdi eta Julio Soto bertsolariekin, Aizpea Euskalzaleen Topaguneak antolatzen duen Euskal ekimenak programaren barruan.

Abenduaren 3an, euskararen egunean, Pirritx, Porrotx eta Marimots pailazoan Bizi dantza ikuskizunarekin hasi zuten urtero Aizpea elkarteak Irurtzunen antolatzen duen Euskal ekimenak programa. Hilabetearen zehar hainbat ekimen izanen dira euskaratik eta euskaraz egiteko. Abenduaren 27an seme-alabak gurasoen kontra futbol partida egingen dute.

Sakanako sortzaileak Durangoko kulturaren plazan

Durangoko Azokaren 54. edizioa izan zen abenduaren 5etik 8ra. Euskal idazleen, musikarien eta kulturgileen zita garrantzitsua da Azoka, eta artista sakandarrak ere bertan izan dira haien proiektuak aurkezten eta saltzen.

Kulturaren plazan den Azokaren aurtengo berrikuntzetako bat DA! Pro topaketa zen. Bertan, hemezortzi musika sortzailek beren proiektuak programatzaileren aurrean aurkezteko aukera izan zuten, eta tartean musikari sakandarrak izan ziren: Beietzi!, Atzapar Rock eta Zetak. Gainera, disko eta liburu azokan ere idazle sakandarrak izan ziren; Castillo Suarez eta Jon Arretxe kasu.



Oihane Andueza 'Darse cuento' liburua eskuetan duela. UTZITAKOA

Bederatzi izaeren teoria oinarri dituzten haurrendako fabulak

Oihane Andueza lakuntzarrak 'Darse cuento' liburua aurkeztuko du herriko kultur etxean, gaur, 18:30ean

LAKUNTZA

Bederatzi animalia dira *Darse cuento* liburuaren bederatzi ipuinetako protagonistak. Ipuin bakoitza fabula bat da eta enegramaren teoria psikologikoan oinarritzen da. Teoria hau bederatzi izaeratan oinarritzen da. Oihane Andueza lakuntzarrak Claudio Naranjo fundazioan boluntarioa da eta bertan ezagutu zuen teoria. Arlo kontzeptualetik haurren hizkuntzara pasatzea izan da Anduezen lana eta "erronka". Gaur, abenduaren 13a, ostirala, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxean aurkeztuko du liburua Iker Uribe lakuntzarrarekin batera. Uribe liburuaren ilustratzaileetako bat izan da, ipuin bakoitza ilustratuta dagoelako.

Bederatzi izaera aurkezten ditu psikologia teoriak eta bederatzi ipuinez osatutako liburua sortu du Oihane Anduezak. "Ipuin bakoitzean badago animalia bat protagonista, eta bakoitzari gauza desberdinak gertatzen zaizkio". Guztiek, aldiz, haurren egunerokotasunarekin zerikusia duten egoerak "komunean" dituztela azaldu du lakuntzarrak. Fabulak direnez, bukaera beti "konturatze" bat dago. "Horregatik liburuaren izenburua Darse cuento da. Bukaeran konturatu naiz edo konturatu ari naiz esaten delako".

Ilustrazioak liburuaren zati garrantzitsu bat dira. Horregatik, liburuaren aurkezpenetan ilustratzaileetako bat dago ere. Hortaz, Lakuntzako gaurko aurkez-

penean Iker Uribe ilustratzaile lakuntzarra egongo da. Aurkezpen "bereziak" egiten dituztela esan du Anduezak. Esaterako, Uribe zuzenean marraztuko duela aurreratu du idazleak.

Psikologia haurrendako

Claudio Naranjo psikiatra, mediku eta psikoterapeuta zen eta bere bizitzako azken urteetan begirada hezkuntzan jarri zuela azaldu du Anduezak. Hortaz, bere fundazioaren helburuetako bat psikoterapiaren tresnak hezkuntzaren zerbitzura jartzea da. "2009an egin nuen fundazioaren ikastaroak eta parte teorika barneratuta neukan". Baina erronkarik handiena alde "kontzeptuala" haurren hizkuntzara gerturatzea izan dela adierazi du Anduezak. "Eta oraindik ere hobetzerik badela ikusten dut". Sorkuntza prozesua izan da: "30 bat ipuin idatzi ditut".

Idaztea "berezi" duen zerbait dela azaldu du Anduezak. "Erraztasuna dut". Idazle funtzionala da; "ez naiz etxean egun euritsu batean idazten hasten den horietakoa. Arrazoi bat izan behar dut. Idazle soziala naiz". *Darse cuento* argitaratu aurretik Zangozako emakume poeten inguruko antologian parte hartu zuen.

Ipuinaren proiektua fundazioarekin harremanetan zegoenez gaztelaniaz publikatu du Anduezak *Darse cuento* liburua, baina "hasieratik" euskaratzea aurreikusit du. "Ez dakidana da noiz, oso lan handia delako".

"Beti izan dut agertokira berriz igotzeko gogoia"

LUR LARRAZA MUSIKARIA

Lur Larraza etxarriarra "hamar urteren ondoren" agertokira itzuliko da Xabi Bandiniren 'Biba' proiektuarekin. Hala ere, musikari lotuta egon da beti

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRIARANATZ Oholtzaren gainean eta atzean esperientzia handia du Lur Larraza etxarriarrak. Gaztetik musikari lotuta egon da. Musikaren munduan lan egiten du, ikusten ez diren lan "garrantzitsuak" egiten. Hortaz, hainbat talde ospetsuekin lan egiten du. Hamar urteren ondoren agertokietara itzuliko da Xabi Bandiniren proiektu berrian.

Musikaren munduan ibilbide luzea egin duzu.

Musikari bezala 15 urterekin hasi nintzen. Sukar Beltza taldean aritu nintzen Sakanako musikari gazteekin. Ondoren, La Betty Travan taldean egon nintzen eta gero beste hainbat proiektutan egon naiz. Beti musikarekin harremanetan egon naiz; musikaren munduan lan egiten aritu naiz. Momentu horretan hasi nintzen soinu ekipo txikiekin lanean Luisillo Kalandraka eta Fran Perezekin, eta talde askorekin ibili naiz lanean. 17 urterekin Berri Txarrak-ekin hasi nintzen lanean, Kerobia, Hesian, Kaotiko eta Vendetta, Gor disketxearekin ere lan egin dut... Orain esan dezaket profesionalki nire momentu hobereena dela. Azkenea proiektua Xabi Bandini da. **Nola sortu zen Xabi Bandiniren musikari izateko ideia?**

Duela urte bat gutxi gorabehera DeepSoda sortu zen eta ni management arloan sartu nintzen. Xabi Bandini Kerobiaren garaia izan zen eta lehenengo diskoaren ondoren gurekin lan egitera etorri zen. Hiru musikari ziren, baina batek utzi behar zuen. Eta Xabik bota zuen: "Lur, igual zuk nahi duzu?". Deigarria egin zitzaizkidan hasieratik gonbidapena eta azkenean baietz esaten erabaki nuen. Orain *Biba* diskoa eta bideoak ere kaleratu dugu. Bira ere egingo dugu. **Taldean perkusio jolea zara, ez?**

Bai. Normalean gitarra jolea eta ahotsa izan naiz eta orain koroak



Lur Larraza, lehen ezkerrean, 'Biba'-ren promozio irudian. UTZITAKOA

"AGERTOKIAREN BI ALDEAK EZAGUTU DITUT, ETA BIAK BEHAR-BEHARREZKOAK DIRA"

egingo ditut eta perkusioa joko dut. Perkusio horrek soinu digital guztia dakar. Beste abesti batzuetan gitarra ere jotzen dut. **Xabi Bandinik estilo propioa du. Nola ikusten duzu zure burua estilo horretan?**

Xabi Bandinik pop-rock indartsua egiten du, dantzagarria. Ondo ikusten naiz. Zortez beti musika pila bat entzun dut. Hasiera batean makarragoa nintzen, baina denetarik entzuten dut. Nahiko ongi moldatu naiz. Gustura. **DeepSodan management zarela aipatu duzu. Zein da zure lana?** DeepSodan arlo asko daude. Management arloan Joseba Razkin eta biok gaude. Talde batek dituen beharrak asetzeaz arduratzen gara. Kontzertuak lotu, diskoaren koordinazioa, bideoak grabazioak antolatu... hori dena kudeatzeaz arduratzen gara. **Musika talde bateko kidea, taldeen**

zuzenekoetan lana egiten duzu, management-a zara... nolakoa da zure bizitza?

Pixka bat kaotikoa da. Batzuetan badirudi asteburuetan bakarrik lan egiten dugula eta aste osoan jai. Baina asteburua iritsi aurretik aste osoko prestaketa lana dago. Dena antolatu behar da.

Ikusten ez den lan bat da, errekonozimendu gutxikoa.

Sakanan kuadrilla handia gaude agertokiaren atzean lan egiten duguna, eta arlo hori ez da ezagutzen. Nik bi aldeak ezagutu ditut, eta biak behar-beharrezkoak dira. Kontzertu bat aurrera eramateko atzean dagoen jende hori dena da, eta alderantziz ere, aurreko musikariak ez badaude atzeko lan horrek ez du zentzurik.

Agertokira igotzeko grina sartu zaizu?

Beti izan dut. Askori gertatu zaigu musikaren munduan oso gazte hasi ginela eta, kakotxen artean, bizitza eroso bat duzunean oso erraza dela. Baina gero bizitza aurrera doa eta lanean hasten zara... Beraz, horrelako proiektuak ateratzeko asko borrokatu behar duzu. Orain berriro esnatokietara buelta egingo dut. Hamar urteren ondoren.



Ziordiko Gaztetzeko kideak herriko festetan. UTZITAKOIA

"Santa Luzia egun ona da urteurrena ospatzeko"

Ziordiko Gaztetzekoak 25 urte beteko ditu aurten, eta gaur, abenduaren 13a, ostirala, ospatuko dute. Santa Luzia eguna aukeratu dute gazteek gaztetzearen urteurrena ospatzeko, izan ere, Santa Luzia egun berezia da Ziordian

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

1 Duela 25 urte sortu zen gaztetzeara. Nola sortu zen?

25. urteurrena berez abenduaren 28an da, baina Santa Luzia eguna ostiralarekin bat egin duenez, urteurrena ospatzea ere erabaki dugu. Gaztetzearan adin desberdinetako gazteak gaude, eta sortu zutenek orain 40 urte inguru

dituzte. Egia esan, ez dugu historia ezagutzen. Etxe bat hutsik zegoen eta sartu ziren gaztetzeara bihurtzeko. Ez dakigu.

2 Zein etxe zen? Izenik badu?

Apaizaren etxea omen zen.

3 Eta zergatik ospatu gaur?

Urteurrenaren data gertu dagoelako eta herrian Santa Lu-

zia eguna ospatzen dugulako. Beraz, eguna aprobetxatzeko gaztetzearan zerbait egingo dugu.

4 Zergatik da garrantzitsua Santa Luzia?

Santa Luzia Ziordiko sainduetako bat da eta garai batean oso garrantzitsua zen. Igerilekuak dauden lekuan ermita bat zegoen, baina harrobirako bidea egiteko

bota zuten. Oso garrantzitsua zen batez ere jostunendako, ikusmenaren ama birjina delako. Eta jostunak etortzen omen ziren. Garai batean ospatzen zen, eta orain ermita ez dagoen arren ospatzen jarraitzen dugu.

5 Duela gutxi berreskuratu zuten egunaren ospakizuna herrian, ezta?

Bai, 2015 urtean edo. Gazteagoak ginenean ez zen egiten. Ez genuen ezagutzen. Tabernetan auzatea egiten da eta eguna ospatzen da.



6 Zer antolatu duzue, beraz, gaurko egunerako?

15:30ean bazkari herrikoia egingen dugu eta bazkalostean bingoa izanen da. Ondoren, tabernaz taberna kantuan joanen gara eta iluntzean afari-merienda egingen dugu gaztetzearan. 23:30ean Igitaita eta Soinuz blai taldeen kontzertua izanen da.

7 Aurretik gaztetzearen urteurrena ospatu izan duzue?

Ez. Aurten urteurren borobila delako, 25 urte. Datozen urteetan aurrekontua badago eta ongi ateratzen bada, ez legoke gaizki ospatzen jarraitzea.

8 Gainera, bi ospakizun batean egingen dituzue. Tradizio berri bat sortu dezakezue.

Herrian festetan egoten da bakarrik parranda, eta orduan, beste egun bat egotea ongi dago.

9 Eta nola konturatu zineten 25. urteurrena zela?

Gaztetzearan jendea asko dagoenez, helduenak kontuak atera zituzten eta konturatu ziren 25 urte pasa direla.

10 Nola kudeatzen duzue gaztetzeara?

WhatsApp talde bat dugu eta ahal dugunean gazte guztiak geratzen gara. Besteak beste, gauzak antolatzeko eta gaztetzeara garbitzeko. Adibidez, hau antolatzeko nahiko bildu gara.

11 Beraz, jarduera gehiago antolatzen dituzue?

Beno, festetan antolatzen ditugu gehien bat. Urtean zehar ez hainbeste, baina gauzak egiten ditugu. Zerbait egin behar denean biltzen gara eta hitz egiten dugu.

